

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Otxandio



Aurkibidea

Udalerria: Otxandio

Sarrera



Bizkaiko hegoaldeko muturrean kokatua dago Otxandio, Gorbeia eta Anbotoren arteko mendizerrek lotzen duten lur altuetan, 549 metrotako altueran, hain zuzen ere. Goi lautada honek Arabako lurrekin muga egiten du. Nahiz eta mendebaldeko herria izan, Bizkaia eta Araba lotzen dituen korridore naturala da Otxandio. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 1.139
- **Euskaldunak:** %70,23

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **40**
- Zintak: **66**
- Pasarteak: **384**
- Transkribatutakoak: **11**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **357**

Proiektuak

- Bergarako hitzaldien grabazioak
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma
- Karobiak, txondorrak eta elurzuloak
- Otxandioko ahotsak
- Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea

Hizlariak

Bibiana -

Juan Aldai Astola (1946)

1946. urtean jaio zen Otxandion bertan. "[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da.



Juan Jose Apoita Ogara (1914-1995)

Otxandioko Gonbilas baserrian jaio arren, hainbat urtetan kalean bizi izan zen. Otxandioko elur-zuloaren inguruko lanak ikusitakoa zen.



Urtzi Armendariz (1979)



Remigio Arrese (1940)

Pilar Askorbebeitia Urigoitia (1932-2013)



Udaletxe kalean sortu zen 1932. urtean, 10 neba-arrebadun familia batean. 10 neba-arrebatatik 9k egin zuten aurrera eta Pilar bigarrena izan zen. Ama bere jaiotetxekoa zen eta aita Morgola baserrikoa. Bere eskola garaiko lagun den [Miren "Campo"](#)rekin batera kontatu zizkigun beraien ume eta gazte denborako bizipenak.

Sebastian Astola Ajuriagerra (1918-2015)

Otxandioko Uribarrena kalean jaio zen 1918an. Aita Otxandioko Etxeberrikoa zen eta ama, berriz, Mekoletakoa. Zazpi anai-arreba ziren. Otxandioko eskolan ibili zen 12 urtera arte, don Alfredo "don Ado" maisuarekin. Karretero laguntzaile egin zuen lan, eta bidegintzako "pintxe" gisa ere ibili zen, Oletako bidea egiten. 18 urterekin gerrara joan zen. Mandazain eta sukalde lanetan ibili zen gerran. Frantziara ihes egin eta Marsellako konzentrazio-esparruan egon zen. Gero Espainian "Batallón de Trabajadores"-en zigortuta egon zen, Espainiako hainbat lekutako eraikuntza-lanetan lana egitera behartuta. 28 urte zituela Tetuanen zigorra bukatu eta bueltatu zen etxera. 33 urterekin, Aramaioako Arriola auzoko Txantontxikiko Pilar Azperekkin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Ezkondu arte kale-baserrian bizi eta lan egin zuen. Ezkondu eta gero Otxandioko BICINAY lantegian lanean hasi eta bertan jarraitu zuen erretiratu arte.



Juan Cruz Axpe (1955)

Txomin Bengoa Axpe



[Durango 1936 Elkartekoek](#) egin zioten elkarrizketa, batez ere 1936ko Otxandioko bonbardaketaren inguruko kontuak jasotzeko.



Gabriel Biteri Axpe (1909-1995)

Otxandion jaio zen 1909an eta bertako elur-zuloko lanak hurbiletik ezagutu zituen.

Emilio Donado Urigoitia (1929)



Otxandion jaio zen 1929.anean. Bere aita herriko maisu ezagunaa izan zen. "[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da.

Miren Gallastegi Ajuriagerra *Miren Campos* (1932)



Urigoienan jaio zen 1932. urtean. Aita bertakoa zuen eta ama Mekoleta auzokoa. Sei neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Bere eskola garaiko lagun den [Pilar Askorbebeitia](#)rekin batera kontatu zizkigun beraien ume eta gazte denborako bizipenak. Otxandioko senarrarekin ezkondu ostean, Basaurira joan ziren bizitzera.

Maria Garaigordobil Hormaetxea (1922-2013)



1922. urtean sortu zen Abadiñon, baina gerora Otxandion bertan bizi izan zen. [Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](/proiektuak/otxandioko-euskaldun-zaharren-mintzamoldea/) egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da.

Jose Garate Garate (1940-2014)



1940. urteko San Jose egunez jaio zen Zelaieta auzoko Zelaieta baserrian. Aita Abadiñoko Mendiolatik heldutako artzaina zen eta ama Otxandio bertakoa. 9 neba-arrebatatik zazpigarrena izan zen eta umetatik hasi zen baserriko beharretan eta artzain modura lanean; hori dela-eta, ez zen eskolara askorik joan, Mekoleta auzoko eskolara. Zazpi urte besterik ez zituela, Aramaio baserri batera joan zen morroi, baina 4 hilabetetara etxera bueltatu zen. Ardiak gobernatzen eta gaztaia egiten lan asko egindakoa da Jose, eta horri buruzko azalpenak ere eman zituen elkarrizketak. 28 urte gaz, Landa lantegian hasi zen, hasiera batean errementari lanak egiten.

Juan Kruz Garate Garate *Azeri* (1926)



Zelaieta auzoan jaio zen artzain familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Atxartekoa, Abadiño. Bederatzi neba-arrebatatik zaharrera izanenez 7 urte zituela, aitarekin hasi zen ardizain lanetan. Otxandio bonbardatu zutenean, belarretan zebilen eta den-dena ikusi zuen etxean babestu aurretik. Aitarekin batera Alonsotegira joan zen ardi eta guzti eta bertan ere bonben erasoak jasan zituzten, justu-justu libratu ziren beraien senitarteko batzuk bertan hil baitzituzten. Lau urtez Estatu Batuetako Oregonen egon zen artzain.

Patxi Garate Garate (1937)



Zelaieta auzoko Zelaieta baserrian jaio zen artzaintzari lotutako familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Atxartekoa, Abadiño. Bederatzi neba-arrebatatik seigarrena izan zen. Mekoleta auzoko eskolan ibili ostean, 10 urte zituenerako artzain lanetan hasi zen aitarekin. Tailerlean lan egin arren sekula ez du utzi baserri eta artzaintza bizimodua eta horri buruzko bizipenak kontatu dizkigu.

Luis Mari Garmendia Garmendia *Kamaño* (1946)



Otxandion jaio, hazi eta bizitakoa. "[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da. Argazkiko ezker aldekoa da "Kamaño".

Karmen Gorostiaga

"[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da.

Santos Irasuegi Gorostiza (1926-2011)



1926. urtean Otxandion sortua. "[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da. Argazkian eskumaldean ageri dena da Santos.



Lourdes Kapanaga (1928)

Bittor Kapanaga Elorza (1925-2011)

Otxandion jaio zen 1925ean eta 2011ko uztailaren 14an hil. Gerra osteko sasoi gogorretan alfabetatze kanpainak antolatzen, kooperatibak sortzen, politikagintzan eta herrigintzako beste hainbat arlotan jarduna. Unibertsitatera joateko aukerarik izan ez arren, jakinduria handiko gizona zen. Artikulu ugari ditu aldizkarietan eta egunkarietan argitaratuak. *Euskera Erro eta Gara* (1978) liburuak eragin handia izan zuen euskararen etimologia, jatorri eta horrelako gaietan interesaturikoen artean.



Kapanagak Bergarako UNED-en 1995ean *Euskaldunen erlijio zaharra* tituluaz emandako hitzaldiaren pdf-a eta audioa daude azpian.

- [Jaitsi PDFa](#)
- [Entzun audioa](#)

Fernando Kapanaga Gonzalez de Langarika (1933-2013)

Otxandioko etxe desberdinetan hazitakoa da Fernando, baina beti kale inguruan. Aita bertakoa zuen eta ama Arabako Araiakoa. Sei neba-arrebatatik gazteena izan zen. 14 urte gaz baserriko eta basoko lanetan hasi zen diru apur bat irabazteko asmoz. Gero Bittor Landaren tailerrean aritu zen Eibarrera joan aurretik. Herrira bueltatu ostean, beste batzuekin batera kooperatiba sortu zuen, gaur egun Ulma taldean dagoena. Gaztetan herriko Vulcano futbol-taldean eta afizionatu bezala txirrindularitzan ere ibili zen.



Alex Larragoiti Gonzalez de Mendibil (1972)



Maitere Larrañaga (1951)



Amaia Lasuen (1958)



Jon Lasuen Goikolea (1921-2019)

[Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko.

Tomas Lopez de Letona Arruabarrena (1923-2017)



Mekoletako Txintxor baserrian jaio eta hazitakoa. Sei neba-arrebatatik zaharrena, umetatik hasi zen lanean, batez ere artzain bezala. Gerran Oromiño (Iurreta) aldera joan zen aitarekin eta etxeko artaldearekin. Gerra Zibileko zein artzaintzari buruzko kontuak oso ondo ezagutzen ditu.

Jose Ramon Magunazelaia Amenabar (1932-2010)

Uribarrena kalean jaio zen 9 neba-arrebatako etxean 1932. urtean. Ama Otxandio bertakoa zuen eta aita Indusikoa, Dima. "[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da.

Milagros Magunazelaia Amenabar (1927-2017)



Uribarrena kalean jaio zen bederatzi neba-arrebatako etxean. Bosgarrena izan zen bera, baina lehenengo alaba; hori dela-eta gazterik lan asko egindakoa da. Ama Otxandio bertakoa zuen eta aita Indusikoa, Dima. Gerra garaian, herria bonbardatzerakoan, alde egin zuten: Mañarian eta Urdulizen egon ostean, Bermeora joan ziren bere izeko han baitzegoen neskame diputatu baten etxean, Nestor Basterretxearen aitarenean, hain zuzen ere. Handik, Berangora joan ziren etxera bueltatu arte. Bederatzi urtez egon zen etxetik kanpo lanean: hiru urtez Galdakaoko etxe batean neskame, beste hiru urtez Bilboko Elkano kalean eta hiru uda Donostiako Internacional hotelean zerbitzari lanetan. Oletako (Aramaio) senarrarekin hiru seme-alaba izan zituen.

Mari Luci Ogara

"[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da.



Inazio Olaso

Ikazkina, nekazaria...

Pilar Olaso Olabarria (1934)

Otxandion munduratu zen 1934. urtean. "[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zueneko grabazioa da.



Aritz Otxandiano (1979)



Juan Mari Otxandiano (1949)



Nati Otxandiano Uribe (1932)

1932. urtean jaio zen Aramaion, baina Otxandion bizi izan da. "[Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea](#)" egitasmoan parte hartu zuen eta [IRALeren Bizkaiera Bilduma](#)rako ere egin zitzaion elkarrizketa.



Mario Padilla (1950)

Juan Padilla Arruabarrena (1924-2012)



Otxandioko herrigunean jaio zen, baina 8 urterekin Gordobil auzora joan zen, amaren jaiotetxera. Urtegiak beraien etxea eta lurak hartu ostean alboko Mekoleta auzora joan ziren bizitzera eta bertan bizi izan da ordudanik. Sei neba-arrebatatik zaharrena izan zen. Bere amaren ahizpa izan zen "Katalintxu lora ederra" kanta ezaguneko Katalintxu. Bederatzi urterekin hasi zen sekula utzi ez duen lanbidean, artzaintzan. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako kontuak.

Koldo Pildain Gonzalez de Langarika (1931)



Urigoiena kalean sortu zen 1931. urtean. Aita bertakoa zuen eta ama Araiakoa. Sei neba-arreba izan ziren. Lau urterekin mojen ikastetxean hasi zen eta bonbardaketara arte ibili zen bertan. Lehenengo bonbardaketan, beraiek jolasten ari ziren lekuan bota zuten lehen bonba, baina babestuta zeudenez ez zitzaien ezer pasatu. Gauean bertan San Bernabe mendira joan ziren denak eta handik batetik bestera ibili ziren denbora luzez: Basagurengo baserri batean, Mañariako Urkuletan, Zornotzan, Bilboko San Frantziskon eta Miraballesen, 1938. urte bukaeran bueltatu ziren. Herriko eskolan ibili zen, harik eta 14 urte gaz nekazari lanetan, aloberan, hasi zen arte. 19 urterekin Eibarrera joan zen eta 10 urtez egon zen bertan lanean. Azkenean, 1960. urtean, herrian bertan zabaldu zuten "Talleres Otxandiano" kooperatiba. Elizako kantore hau ikatz-txondorrek egiten ibilitakoa ere bada.

Nikolas Pujana Goikoetxea Arranke (1925)



Otxandioko herrigunean bertan jaio zen 1925.ean eta ordudanik herriko leku desberdinetan bizi izan zen. Zazpi neba-arreben artean hirugarrena izan zen; gurasoak ere bertakoak zituen. Herriko eskolara joan zen 14 urtera arte, baina bonbardaketa osteko egunean Sorromostrora eta Bilbora egin behar izan zuten alde. Bitarte horretan, aita zapadoreetan ibili zen preso hartu zuten arte. Herrira bueltatu eta eskolara itzuli zen, baina 14 urte gaz Urkiolako sakristauaren etxera joan zen morroi. Lehenago Otxandion egin bezala, bertan ere monagilo lanetan aritzen zen. Denetariko lanak egin izan ditu: morroi, monagilo, artzain, tailerrean, Fonda tabernan zerbitzari... Hala ere, bere zaletasun handiena ehiza da: 11 urterekin hasi eta 84 urtera arte aritu izan baitzen.

Dolores Uribe Otegi (1937)



Otxandioko San Antonio baserriko alaba. Gurasoak ere otxandiarrak zituen eta 4 neba-arrebatatik neska bakarra izan zen. Umetatik hasi zen baserriko lanetan eta ardiak zaintzen; hori dela-eta, eskolara gutxi joan zen. Herriko hainbat dinamiketan parte hartu izan du Doloresek; esate baterako, Frankismo ostetik, bera da herriko jaietako limonada ezaguna egiteko arduraduna eta lehenengo euskara batzordeko ardura ere berak izan zuen. Sei seme-alabaren ama.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Lehenengo irratia

- **Hizlaria(k)**: Pildain Gonzalez de Langarika, Koldo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: OTX-010/031
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 01:11:29. **Bukatu**: 01:13:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Lazkano, Ekain
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena**: Gerraostetxoan Marconi eta Telefunken marketako lehenengo irratia agertu ziren. Tabernara joaten zenik bazen, kafea hartuaz bat irratian ematen zuten nobela entzutera.

Transkripzioa

-Ta esan dozu Iberduero etor zala berrogeita hamabidhen eta...

-Bai hamahiruen.

-Eta lehenengo radixue edo lehenengo telebisiñue edo... akorduen dekozu zuen auzokue-edo?

-Bai, bai.

-Nork euki eban lehenengo radixue?

-Radixue, radixue... radixuek egoten zien gerraostetxuen be, bai, Marconi, Marconi ta Telefunken ta horrek Markok bai. Baie bat egoten zan, Amenabarrenak Martin Arranketxuenak edo harek auken radixue. Ze ni, ni gogoratzen naz hemen, Pedron aitte, Jose Ramon difuntue, ointxe igez hil zan, ha ni baiño urtebete gaztiaue, ta ni zapatuetan taberna, ta hara ha juten zan bere osaban etxia zera... nobela bat entzuten, nobela bat, ez dakit ze nobela famosa botaten eurien, ta gu tabernan kafia hartzen ta... Bai, horreaz akordetan naz. Bai baeguezan radixuek, hainbat eguezan, baia ez ez asko ez asko, oin dauz, bueno oin bapez, oin ,atzea bapez.

-Ta periodikurik leiten zenduen etxien? Ez...

-Periodikue eskolan maisuek.

2. Familia eta harremanak

2.1. Mutilen eta nesken eginkizunak desberdinak ziren

- **Hizlaria(k):** Magunazelaia Amenabar, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** OTX-012/008
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:18:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Milagros sekula ez zen joan errotara irin bila. Hori mutilen eginbeharra zen. Desberdinak ziren mutilen eta nesken eginkizunak. Nesken artean nagusiena zenez, berari eta neba zaharrenari egokitu zitzaien lan gehientsuenari aurre egitea.

Transkripzioa

- Mutillek zelan euki genduzen, ni holan zereaz, zorruaz-eta ez. Mutillek zelan bost mutil euki genduzen, ba pentseu eizu! Mutillek eitten eurezan horrek gauzok, Baie errotie dau plazatik bajatu ta ensegida. Oin ya ez daure idxotik ta ezebez, oin ez dau holako zerik. Bai orduen denporan errotie ba plazatik segidan, ezkerreta.

- Ta esan dozu hori mutillek eitten eurela. Ta ze biher zan mutillena ta ze biher zan neskana? Diferentzidxau eitten zan, ezta?

- Bai diferente. Ba neskak, ba ni neusidxena nesketatik, aittu dozu? Ta horrenbeste mutil eta gure aiñe, gure aitte diffuntuek esaten ostan. Gure aiñe erropa eta harek aitte dufntuek sekule niri demandarik ez, ez ostan eitten. Klaro gure aiztiak esaten dau, bestiek gaztiauek, hil da hori Pakita ointxe lau urte izengo diz, San Bernabe egunien hil zan, ta harek esaten ostan: "Bai, ni neu etxien biherra ein eta biherrak ein" aittu dozu? "ta bestiak zerian-ta". Nik demandan be eitten notsan igual zerien, ba neure hurrungoko zerai: "Bai zuok beti zabize kalia ta etxien ezebez ez dozue itten". Ta aitte defuntuek beti niri fabore urtetan dauen, ta klaro neuk eitten naban biherrik gehidxen, neuri tokau jatan, ta gure mutille be oin Karmelo nausidxena be, hareri tokau jakan gehidxen biherra eittie. Gero gaztiak hobetotxuau bizi zien, baie gu, ba ni be nesketatik, bost mutilegaz, atara eizu kontue! Bai, erropak oingo moduen labadorie-eta euki bagenduzen? erre kara juen eta erropak garbittu ta han eskei be eitten genduzen, ta gero plantxau ta horrek danok.

2.2. Hilekoa, bizioak eta zurrakapote

- **Hizlaria(k):** Askorbebeitia Urigoitia, Pilar; Gallastegi Ajuriagerra, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** OTX-024/001
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena:** Neskek hilekoarena ahizpa zaharregandik jakiten zuten, edo lagun arteko solasetatik. Hamazazpi urterekin Pilar neskame joan zen Bilbora. Ahizpak amonari kontatu zion bere lehenengo hilekoa etorri

zitzaionean, eta honek zapiak prestatu zizkion. Mireni hilekoa etortzen zitzaionetan amonak koñak kopatxo bat eskaintzen zion. Pilarri, berriz, bizioentzako ematen zioten koñaka, berakatz atalekin kopan jarrita. Katarroa kentzeko zurrakapote ematen zieten, koñak beroa alegia. Sukarrentzako zapi hotzak jartzen zizkieten bekokian. Tripak txarto bazituzten, kamamila hartzen zuten.

Transkripzioa

- Hillekoana-ta berba eitten zenduen?
- Pilar: Hillekoana? aitzak arkali.
- Miren: Berba ein, nogaz?
- Edo jakin zenduen umetan zer zan hori?
- Pilar: Honbre! Eske lagunek kontau eitten gendun halantxik izen da, beste.
- Miren: Arkalegaz berba eitten genduleko, ostantzien ez.
- Pilar: Arkalegaz berba eitten gendun ta arkalegaz.
- Miren: Ez gurosoak-eta esaten doskuleko e!
- Pilar: Ni ni berandu, ni hamazazpi urtegaz desarrollau nitzen, hamazazpi urtegaz.
- Miren: Ni hamabostegaz ya e!
- Pilar: Ta orduntxe txiki-txikitxue izen nitzen, honan txaparratxo bat. Eta hamazazpi urtetik hamazortzire hazi nitzen.
- Berandu hamazazpigaz!
- Miren: Ni be hamabostegaz e!
- Pilar: Orduentxe desarrollau nitzen ta umezain juen nitzen Bilbora, bai Bilboa umezain, etxe batia. Ta egon nitzen bai ein noazan hamazazpi hillebete ein notxak kridxada. Hamazazpigarren hillebetien esan nauen: Zer? neuk han aizatxuek txikitxuek bakarrik eta iñon umiek zaintzen? Etxea!" martxau nauen eta kitttu! "Neu iñon umiek zaintzen ta guriek...".
- Guri hillekuek etor zien lelengo Iziarrek eukin eban, eta amama geuk etxien nire aitten ama, ta amamari Juani esan notsan: "Amama, Iziarri haudxe pase jako amama ba-ta", "Ai, etorri etorri!" Amamak esan oskun: "Haudxe da holanxe", ta holantxe akordetan naz esku-paño zahar batzukin ein oskuzen pañuek ta "ipiñi hauxe ta holantxe holantxe" amamak, baia hasi zalako Iziar ba odola urteten dotsola ta estu ta larri gu, ez genkidxen ezer-ta.
- Pilar: Esplikaziñorik be ez oskuen emoten.
- Miren: "Amama Iziarrek odola". Amari-ta preguntau? bai bai! Amari preguntau? Ezta! Iziarrek bez ta nik bez. "Amamari esango dotsau", "Amama, hauxe ta hauxe Iziarri pasau jako", ta "trankil, trankil" amamak. Amamar Mari Juanak esplikau oskun guri, Iziarri eta bidxori.
- Eta miñentzat-eta, miñentzat eta zozer hartzen zenduen?
- Pilar: Miñentzat? miñentzat ezebez.
- Miren: Koñak gure amamak.
- Pilar: Isilik, isilik zauz! Guri...
- Miren: Pilar, nire gure amamak, hillekuek etortzen zientien, esaten aban : "Amama benga, ez badator-ta". Holakoxe kopatxo bat koñak emoten oskun. "Hori da ona".
- Pilar: Nik koñakik ez.
- Miren: Ez daitz ona edo txarra izengo zan, baia hartzen gendun eta kittu!
- Pilar: Nik koñaka ez. Ni hamazapi urtegaz desarrollau nitzen.
- Miren: Hamabost genkozan guk Iziarrek eta bidxok, Iziarrek lehentxua ni baiño hamabost urtegaz.
- Pilar: Koñakik ez, koñaka hartun noan behin bizidxuentzako.
- Miren: Holantxe, amamak emoten oskun apurtxo bat, asko ez, apurtxo

bat. Berotu eitten zan ta berue ekar biher ba, ai Jangoikue!

- Pilar: Bizidxuek eukitten nabazan asko ta esan ostien bizidxuek hiltzeko dala ona, serenuen kanpuen itzi koñak basotxu bete koñak, berekatz atalakaz ta harexeaz hiltzen dizela. Edan nuan ha pentsetan nabon belarridxetatik be suek urten biher dostala /biostala/. Haregaz ez naz ahaztuten.

- Bizidxuek kendu jatzuzen?

- Ez daitz kendu zien, baia idxe-idxe ni bai juen nitzen beste mondora, harek berotasunek, bueno bueno, ez noan han hartu. Esan nabon, bizidxoak. [...]. Nik bizidxuek asko.

- Eta holako beste erremedixorik? bizidxuentzat koñaka, eta katarroantzat edo kalenturientzat-eta.

- Pilar: Zurrakapote, zurrakapote.

- Zer da hori?

- Ba koñak berotu ta edan.

- Hori zetako?

- Miren eta Pilar: Ba katarrue kentzeko, zurrakapote.

- Ta kalenturientzat?

- Pilar: Kalenturientzat?

- Miren: Nok igerri bagendukan ala ez.

- Pilar: Pañu hotzak ipiñi.

- Miren: Pañu hotzak ipiñi hamen bekokidxen ta yasta.

- Pilar: Ta harexeaz.

- Ta botaka-edo ibili ezkerro-edo?

- Botaka? ba bota.

- Tripak txarto.

- Tripak txarto egon ezkerro manzanillie.

3. Baserria

3.1. Ilargiaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Magunazelaia Amenabar, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: OTX-012/016
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:35:33. **Bukatu**: 00:37:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Txerria Gabon aurreko ilbeheran hiltzen zuten. Ilargiari kasu egitea garrantzitsua da, eragina baitu.

Transkripzioa

- Noz hil biher izeten zan txarridxe?

- Ba neguen, ilbeheran. Guk beti begituten gontsen, ni akordetan naz, aittek defuntuek eta ama defuntuek be beti esaten aban: "Ilbeherie ontxe laster da" ta orduntxe ilbeheran hiltzen gendun txarridxe betik. Gabon aurretuen. Ba ilbeheriek dauko zerikusidxe haundidxe. Oin ez dotse /etse/ emoten inportantzirik, baia on be emoten dotse /emotentse/ inportantzidxe. On be lorentzako ta ba lorentzako ta be ilbeherieri begituten jako, ze lorak-eta sartzen bozuz ilbeheran, betik hobeto zertzen deure, ilbeheriek, ilbeheriek pentsau ez arren efekto haundidxe dauko e! Lehen ez jakan /etxakan/, bueno oin ez jako /etxako/ emoten holako

inportantzirik, baia lehen bai. Lehen betik ilbeherieri begituten jakon, halan bai, txarridrek hiltzeko-ta betik ilbeherie.

- Ta orturako be bai?

- Orturako be bai. Orturako honek letxuga hazidkek-eta ereituko ilbeherie begiten jako. Ilbeheran betik beste zeren bat deko horrek urak. Nik holan entzun dotset /entzuntset/ betik honek persona geu baiño zaharrauai. Entzun dozu? ta esan dotsuan /esantsuan/ morun lorantzako be bai e! Lorak be podau-edo gure bozuz edo zerien, ilbeheran betik zer daukiela, askoz be. Bai.

- Bai zoyer eukiko deu, ezta?

- Bai. Nik neuke be holan jeranidxuek-edo haundidkek-edo euki dodazenien-ta, ba betik ein dot ahalegin ilbeheran zertzie ta gero ba uretan euki ta ipiñi ta ba danak hartzen deu indderra.

- Ta ulie-eta ebaitteko?

- Ez, nik ez. Ulie ebaitteko batzuk badauke oin be, nik gure etxien ez dot entzun holakoik.

3.2. Errusiar ardi-txakurra. Ardiak basoan

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Letona Arruabarrena, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OTX-021/016
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:32:02. **Bukatu**: 00:33:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Txakurra zahartzen zenean txakur gaztea ekartzen zuten zaharrarekin ikastera. Lagun batek Errusiatik ekarritako txakurkume bat eduki zuten, eta oso ona omen zen. Goizean basora joan, ardiak kontatu eta ingurutik buelta bat eman ondoren etxera itzultzen ziren. Arratsaldean beste buelta bat ematen zuten. Euria zenean, txabola baino aterki handi bat erabiltzen zuten.

Transkripzioa

-Txakur bategaz konpontzen ziñien?

-Bi be bai eukitten [genduzen] guk, bi be bai, depende. Bat igual zahartxue ixeten danien, "gazte bat ekarri biher da". Gaztie ekarri ta ba ha ipintten jun astiro-astiro.

Laguntzailea: -Txakur batek, oingo txakurrak erakutsitta dauzenak bostehun ardiko errebañue ibiltteko ez daue biher ezebez.

-Oh, txakurrak oin raza elegantiek dauz. Azkenengo euki gendun, ixeko bat Bilbon, ta barkuko kapitanen bateaz eukitten eban amistadie, ta ekarri eban, Rusiatik ekarri oskun txakurkuma bat.

-[... txakurre?]

-Bai. Gris-gris bat txakurre elegantie, jode. Ta handik, raza... emie zan, ta handik atara ebezan raza batzuk onak.

-Eta mendixen egoten ziñienien nun bizi izeten ziñien zuek.

-Bixi? Bixi beti etxien. Ardixek basuen. Ardixekin egon in biher zan basuen egunero. Goxien juen ta pillatu, konteu aber danak badauz eta ez badauz eta. Eta gero eurek ardixek ibiltten zien, ba nobera haintxe eurekin egon.

Laguntzailea: -Hemen bizitten zan goxien pastorie beti be, goxien goxetik,

eta hamaiketako etorri etxera ta atzera arratsaldien...

-Ta txabolarik ez zenduen eukitzen?

-Ez. Txabolaik ez. Guardasol haundiren bat eta tapabokan bat eta, hantxe isilik.

4. Aisia

4.1. Pilotak, abarketak eta abarkak

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Letona Arruabarrena, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OTX-021/007
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:14:39. **Bukatu**: 00:16:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- **Laburpena**: Larruzko pilotak herriko denda batean erosten zituzten. Pilota ondo gordeta zaintzen zuten. Abarketa batean behatza agertzen bazitzaion, abarketa hankaz aldatzen zuen. Zazpi txakur handi (pezetaren 70 zentimo) balio zuen abarketa pareak. Herrian bazuten orduan abarketaria, abarketari eta bizargina ere bazena. Abarkak bakoitzak bereak egiten zituen, harik eta gomazkoak agertu ziren arte.

Transkripzioa

-Zelako pelotak?

-Ba pelotak narruzkuek eukitten genduzen, bai. Saltzen egoten zien hemen denda baten. Pelota txikitxuak.

-Etxeko narruagaz ez zuek egin?

-Ez, ez. Eindde eoten zien, eindde. Gauza gitxigaittik saldu itten zien. Gero Durengon-ta saltzen ebezen-ta ekarri jentiek. Pelotia estimau eukitten gendun, gordeta, listo, jooe!; ai ene!

-Abarketak apurtzen?

-Abarketak apurtu, sarrittan bihetzak igual urten bat. Gero ha kanbixau bestaldea ta holan itten gendun. Abarketak. Zazpi txakurraundi balio eben, e! "Siete". Abarketak.

-Eta nun erosten zenduzen?

-Hamen [... dendan], in itten zauen batek, "Abarketerok", Xabinek aittak in itten ebazen bertan. Zan abarketerue ta barberue.

-Danak bat.

-Zapaterue, Jose Zapaterue, ha bestie, zera, Makazteikue, hemen behien egon zana.

-Eta abarkak?

-Abarkak in itten genduzen geuk, abarkak in, narruekin geuk in. Abarkak? Ez euen diruik erosteko. Gero urte asko [danien] etorri zien, gomazko zer batzuk urten eben baiña, azal-azalak, gauza gitxigaittik ba... Harek etorri zienien, jodee!, bueno!, beinticinko baiño dotoriau. In itten genduzen abarkak geuk, bakotxak beretzat in.

5. Lanbideak

5.1. Abarkak eta trailak egiten

- **Hizlaria(k):** Lopez de Letona Arruabarrena, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** OTX-021/009
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:17:08. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Abarkak egiteko era azaltzen du. Trailak artile beltzez egindako abarka-sokak ziren. Artilea kardatu eta maratila [txaramela] bueltaka erabiliz egiten zuten haria, eta harekin traila. Aita zen lan horietan jarduna, eta neguan elurra zenean umeak ere zeregin horretan laguntzen jartzen zituen. Kardatu aurretik artilea ondo garbitzen zen.

Transkripzioa

-Narrue, narrue ebaitten gendun holan. Bi. Josi, tijera puntie, hau puntie zertu hemeti holan, josi puntie, ta gero eskiñatik pasatu, kordela danien, estutu ta abarka hola formia emon ta gero traillak ipini hankan lotzeko.

-Zer dira traillak?

-Traillak, kordela. Kordela itten zan, laniakin itten gendun, lana beltzakin. Harixa in eta gero itten gendun kordela.

-Eta kordela zelan eitten zan?

-Trailla. Kordela laniakin itten gendun, ardi lanie kardatu, finddu eta gero hartu ta ra-ra zegaz erein ta raka-raka-raka! zera in...

-Txaramalegaz, ezta?

-Bai, txaramalegaz itten zan lanie. Ta gero lana asko, zortzi-hamar lana hartu, ta batak alde batera ta bestiak bestera bixurra emoten dxakon ta tiratu ta itten zan ba kordela, traillie esaten dxakona. Horrek danok itten genduzen lehenau, eneee!

-Eta zuen etxien nok eitten ebazen?

-Aittek, aitte zan artistie horretan, aitte. Guk lagundu.

-Etxerako edo?

-Ez, ez, etxerako. Neguen, edurrek eitten, ardixek ez zien ataraten, igual kortan edo zerien ta: "Bueno aber, batek kardatu lanie, bestiek erein", ta halan egoten giñen egunek. Holako gauzak itten genduzen lehenau be. Joee, ya lo kreo!Ooin be akordetan naiz. Ointxe be ingo nauke nik lanie, ointxe be bai. Bai.

Laguntzailea: -Hasittie igual kosta.

-Zera biher, kardak, kardatu in biher lelelengo lanie, garbittu. Lanie itten zan garbittu, ondo jaboiaquin ondo garbittu ta gero sikatu. Ondo sikatu. Sikatutzen zaniene ondo ba gero kardatu itten zan. Holako pare bat, kardak esaten dxakona. Hartu ta rast, rast, rast... Ha kardau ta...

6. Ohiturak eta bizimodua

6.1. Mutil eta nesken arteko harremana. Bizikletak

- **Hizlaria(k):** Lopez de Letona Arruabarrena, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Erref:** OTX-021/012
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:21:03. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Mutilak pilotan jolasten ziren eta neskak sokan. Elkarrekin ezta pentsatu ere. Dantzari [jantzan] oratuta egitea debekatuta zuten. "Laukuen"; jolasten ziren txakur handiekin (hamar pezeta zentimoko txanpona). Sondikako senide batzuek erregalatu zioten lehen bizikleta, baina kaminorik ez zegoen ibiltzeko. Geroago helduentzako tabako bila joaten zen kalera bizikletaz, "biajea"; txakur handi bat kobratuz.

Transkripzioa

-Eta lehen esan dogu olgetan pelotan ibiltzen zinela mutilek.
 -Bai. Mutillek mutillekin.
 -Eta neskekin?
 -Neskak jolasten eben ostien, sokan edo, sokiaz, bik eragin eta bestiek salto, saltoka.
 -Eta zuek neskakin ez? Zuek eta neskak batera?
 -Ez, ez, ez. Ya-ya... Hemen Otxandixon be ez, eta iñun be ez aben ixten jantzan agarrauan itten be, sueltuen bakarrik. Ebatute agarraurik? Ya-ya! "Prohibido terminantemente".
 -Bai?
 -Bai, bai, bai. Hori jakingo dau horrek hori, honen sasoi be.
 Laguntzailea: -Gure denporan be aparte. Mutillek normalien pelotalekuen ta, honek esan dauena, neskak sokan edo.
 -Ta horregaz be jokutzen [gazen], klaro, laukuen, laukuen; txakurraundixekin laukuen. Holako kuadro batzuk itten zien, zerak, eta han bastante lau edo bost pausotatik txakurraundixakin hara laukuen olgetan.
 -Eta bizikletan-eta ibiltzen ziñien?
 -Bizikletan, erregalau ostien, kamiñoik be ez zan egon hondiño eta ekarri ostien, erregalau ostien, Sondikan daukazu pariente batzuk ta Frantzian erosi ebala eta ez dxakola gustetan berai eta ekarri ostien neuri hartute. Orduen kamiñoik ez auen eta hara [...] barrerako zereaiño kotxiaz hareaiño etorri ta handi errotatik oiñez, bizikletia ekarri ostien neuri. Gero kamiñue ein zebeñien, egundo lelengo bizikletie neuk euki [neuen?] han; mutikue. Etortzen nitzen sarri, ba fumadoriek, aitte be bai ta, Gaberdi ta: "[...!], ekarrik tabakorrie ta..." Biajie txakurraundixe. Aiba, txakurraundixe!
 -Bizikletie askok ez eben eukiko.
 -Bizikletia ez, honbre!
 Laguntzailea: -Kontauek, honen denboran kontauek. Geruau be bai. Bizikletak? Keba! Niri erregalau in ostielako, ostien dirue zerien euen.

6.2. Erre-belar enplastua

- **Hizlaria(k):** Askorbebeitia Urigoitia, Pilar; Gallastegi Ajuriagerra, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** OTX-024/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:15:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Erredurak sendatzeko errebelar enplastua zen ona. Haren izerdi horia erabiltzen zen horretarako. Garatxoentzako ere eraginkorra omen zen. Izerdi hori ez omen da ona xurgatuz gero. Landare pozoitsuak ere badira.

Transkripzioa

- Eta errientzat? erre ezker?
- Pilar: Ba erre-bedarrak, bedar batzuk dauz erre-bedarrak, enplastue ein ta ipiñi.
- Ta zer bedar dien bakizu? edo zelakoak?
- Pilar: Gurien...
- Miren: Apurtute holan esne hori bat urteten dotse /urtetentse/, horidxe urteten dotse esne horidxe ta harexeaz esnian untau ta gero enplastau, ez daitz zelan dekon izena e.
- Pilar: Horrentzako "verrugas" be horrentzako be ha ona ona tintie gorri bat.
- Miren: Horidxe dauko.
- Pilar: Horidxe dauko, baia haren lorak diez benenosuek. Nik liburu bat dauket ze bedar dizan onak ta ze bedar dizan txarrak. Ta gero dauz holan girnaldak urtetan dabe lora zuridkekaz, ta harekaz kontuz ze harek benenosuek die-ta. Gu ez ez goizelako zerik, baie.
- Miren: Txupau ez dozulako eitten.
- Pilar: Ez harek txupetakuek ez diez, baia diez polittek holan girnaldak-eta eitteko diez polittek. Baia hegaziek eukitten nauezenien, behin ikusi noezan harekek bedarrak jaten ta gero hegaztidxek moteldu. hartu noan liburuoi, begittu noan ta "que tinen veneno". Ta horrek tinte zerak be benenue da.
- Miren: Txupetan bozun bai.
- Pilar: En kanbio beren tantakie ona da.
- Miren: Oso , errientzako-eta oso ona da.
- Pilar: Berrugak kentzeko.
- Miren: Errientzako be bai. Izena ez daitz zelan daukan e!
- Pilar: Nik liburue bati emon notsan, zelan berak bedar soluen bedarrak-eta eitten eban ba nik ez nazenien nire illobak hau leidu be ez daure ingo. Ta beittu zelako tontatxue nazen, ba emon notsan haidxe liburori. Esan notsan: "Eutsi!".

7. Politika

7.1. Ardiekin joanda eta Oromiñon metrailaketa

- **Hizlaria(k):** Lopez de Letona Arruabarrena, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** OTX-021/014
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:26:14. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

- **Laburpena:** Castillo de Elejabeitiara, Arteara, hiru urtez artaldea eraman ondoren, Oromiñora (Iurreta) joaten hasi ziren. Han zeudela aireplano batek metrailatu egin zituen, inguruko zuhaitzak ere balekin moztuz. Ozta-ozta irten ziren onik. 150 bat buruko artaldea izaten zuten, garairako artalde ona zena.

Transkripzioa

-Esan dozu eskolan ibiltzen ziñenien be biherrien etxian.

-Eskolaa noz edo noz, noz edo noz eskolaa. Gaur "fuera, al monte, al monte! Ya esta."

-Kontaizu apurtxo bat hori zuen bizimodua ardixekaz eta zelan izeten zan.

-Ardixekaz ba hemen egoten giñenien ba zerak erosi itten zien, soluek, landak erosi. Ta gero ba "gaur eruen hara, bixar eruen hara beste landara", ta holan. Gero jueten giñen, hemen ez euen ya landa zer moduik eta jueten giñen en jeneral zerian, hor Castillo Elejabeitian be egon giñen hiru urtien edo. Handik pasau giñen Oromiñora gero. Oromiñon landa gehixau, terreno gehixau euen han ta, han hobeto arregletan giñen. Bai, ardixekin geozela hemen, Arriaundi, Arriaundi ezautzen dozu?, bai. Haxe pasau ta ensegida dau eskumatatik Arantzamendi esaten otsien etxe handi bet, ta hango soluek... ta han. Bagauz han, mekauden, hemetik atxetik behera nun datorren abioneta bat eta tarraauu!, ametraillau [...], ta eskerrak holako zulo batea aitta ta bixok sartu giñen, ta jota arbolak be ebai in ebazen danak. "Mekauben la leche que le han dau!". Bai, orduen salbau giñen por txurro, e! Haraxe zulo mudukora bixok sartu giñelako... Rau!, ebai ebazen danak, baztarra guztiak. Mekauben diez! Harek eztaitt zegaittik, ardixek ikusi ebenien arioplano abioien zera, ardixek mobidu zien, ezta?, ta jentie dala pentsau edo ez dakit ba ze, eta mekauben diez, ametraillau eban, mekauben diez! Bueno! Gero ez giñen etorri be in hara, bestaldien egoten giñen gero.

-Zenbateko artaldie eukitzen zenduen?

-Ehun eta berrogeta hamar edo holan, enjeneral. "Ciento cincuenta, ciento sesenta".

Laguntzailea:-Orduen ehun eta berrogeta hamar buruko artaldie zan artalde ona.

-Bai, bai.

-Gaur egun bostehun baiño gehixao biher dozuz. Bostehun da txikixe.

-Gaur bai.

-Gurien be ehun eta berrogeta hamar.

-Juanek badekoz...

-Harek bostehundik gora eukiko dauz, harek bostehundik gora.

Laguntzailea:-Lehen ehun eta berrogei, ehun eta berrogeta hamar, ehun eta hirurogei...

-Errebañu ona zan.

Laguntzailea:-Txarrix, astue ta hori. Baiñe oin ez, oin biher diez...

-Bai. Hor daukazu Cordobilla-Padilla, bostehun eta piku euko dauz, gora.

7.2. Gerratik ihesi

- **Hizlaria(k):** Askorbebeitia Urigoitia, Pilar; Gallastegi Ajuriagerra, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** OTX-024/020
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:48:56. **Bukatu:** 00:50:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerra hasi eta berehala San Blas baserrian zeudela jaio zen Pilarren ahizpa bat. Handik Baltzolako kobara eta gero Bilbora joan ziren. Etxera itzuli zirenean etxea ondo aurkitu zuten; baita Mirenek ere. Pilarren familiak gauza asko beste baserri batean, Urkiolara bidean, gorde zituen gerra hasieran, baina bueltan erdiak ezkutatuta zeuden.

Transkripzioa

- Handik kanpotik hona zematera buelte ziñien? denpora asko hortik-edo?
- Miren: Ez daitz horidxe bai ez naz gogortzen.
- Pilar: Ez dakit, ez naz gogoratzen zemat denpora ein gendun, ze gurien Maria Jesus jaidxo barridxe zan, ha jaidxo zan zerien, San Blasen, San Blas da Makaztoittik gora dauen baserri bat.
- Miren: Dimatik.
- Pilar: Han jaidxo da, gorri denporan esaten daure, "en los tiempos de los rojos", gorri denporan, ha hantxe jaidxo zan. Ta ez daitz zemat denpora ein genduzen, ze gero handik bajatu giñen Baltzolako kueba eta gero Baltzolako kuebatik jun giñien Lezama, ta Lezaman egon giñen ez dakit zemat izengo zan, igual izengo zan hillek bakarrik, urtebete ez hillek.
- Miren: Ni ez naz gogoratzen, ezin neike esan, ze ez naz gogoratzen.
- Pilar: Hemekue paseu zanien etorri giñien -ta.
- Eta etxie zelan topeu zenduen?
- Pilar: Etxiek guk ez gendun topeu [...]
- Miren: Gurie ondo, ze gurien aitte ta ama etxien geldittu zien-ta.
- Pilar: Aittitte hantxe bizi zan.
- Miren: Gurien aitte ta ama hamen geratu zien osake etxie ondo.
- Pilar: "Lo que pasa que" gauza guztidxe eroan eurezan Andaparaluzetara, Andaparaluzeta dau Urkidxola bidien dauen lekoko Morgaola paseu ta baserridxe. Ta hara erun eurezan gauza guztidxe, aittu dozu? ta gure ama etorri zanien erdidxe be ez zabazan topau.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolako maisu gogorra (OTX-002/002)

Bere familiarik geratzen den bakarra ei da Sebastian; "muestrarako" geratu dela dio, "propinaz" bizi dela gaineratuz. Don Alfredo maisu gogorra gogoratzen du. Hirurogeitaka ikasle egoten ziren gela bakoitzean; neskak beheko solairuan eta mutilak goikoan.

2. Eskolak; guardia zibilekin erdaraz (OTX-002/003)

Errepublikako manifestazioak gogoan ditu. Eskolak erdaraz jaso zituen. Eskolatik aparte, guardia zibilekin bakarrik egiten zuten erdaraz. Sebastianek dio erdararik ikasi ez eta euskara ahaztu duela.

3. Aita karretero. Asuna sendabelar (OTX-002/004)

Dotrina euskaraz jasotzen zuten. Kale-etxe batean jaioa zen arren, ganaduak bazituzten, kale-etxe ia guztietan behiren bat zuten bezala. Sebastianenean 4-5 behi eta idi pare bat edo bi izaten zituzten. Aitak karretero jarduten zuen jornalean. Aitak "otsoei kendutako txokolatea" ekartzen omen zien umetan. Aitak gripea sendatzeko asunak erabiltzen zituen paparrean sartuta. Sebastianek ere, hezurren gaixotasunaren kontra asunekin astintzen zuen bere gorputza, ondo gorritu arte.

4. Umetako lanak (OTX-002/006)

Hamabi urterekin utzi zion eskolari. Gerra aurrean Oletako bidea egin zenean, Sebastianek "pintxe" lanetan jardun zuen, langileei ura eraman eta halako eginbeharretan. Bidegintza lanetatik aparte, etxeko ganaduak zaintzen laguntzen zuen. Aitari ere laguntzen zion bere karretero lanetan, ikatz, enbor, etab. garraiatzen.

5. Elurra kentzeko makina idiekin tiratuta (OTX-002/007)

Elurra zenean, "Txakur Zulo" izeneko lekuraino joaten ziren idiekin tiratutako elurra kentzeko tramankuluarekin. Morenoren autobusa pasatzeko adina garbitzen zuten errepidea. Hiru idi parek tiratzen zioten makinari, eta beste hiruzpalau lagun joaten ziren ondoan palekin.

6. Arcachongo hondoratzea (OTX-002/012)

Arcachonen, itsasontziak gauez hondoa jo zuenean, gorriak ikusi zituzten. Igeri ez zekitenak txikota bati oratuta egon ziren laguntza heldu zen arte. Itsasontziaren ugazaba ondarroarrak negar egin omen zuen. Lurreratu zirenean, artean ez zekiten Frantzian edo Espainian zeuden. Azkenean, bertako neska batekin topo egin eta jateko zerbait lortu zuten.

7. Harrera ona eman zieten Frantzian (OTX-002/013)

Oso ondo hartu zituzten itsasontzia hondoratu zen ondoko herrian. 30en bat lagun zihoazen txalupan eta denak onik irten ziren. Hartu zituzten herrian biltegi moduko bat utzi zieten egoteko, eta jatekoa bertara eramaten zieten.

8. Frantzian ere txakurrak ortozik (OTX-002/014)

Frantziar jendea gerrarako mobilizatzen hasi zenean, gizon faltagatik, Sebastian zegoen kontzentrazio-esparrura joaten ziren hango baserritarrak langile bila. Berak eta lagun batek sei hilabete eman zuten baserri batean lanean. Jateko patata egosiak eta esnea besterik ez zuten izaten.

9. Kontzentrazio-esparrutik baserri batera lanera (OTX-002/016)

Euren lanagatik jasotzen zuten diru apurra kontzentrazio-esparruko komandanteari emateko agindua zuten. Eurek ez zuten nahi, eta jendarmeeek arrazoia eman zieten. Ganaduak zaintzen eta laborantza lanetan jarduten zuten baserri hartan. Sei hilabete han eman eta gero kontzentrazio-esparrura itzuli ziren.

10. Frantziatik Espainiara bueltan (OTX-002/018)

Kontzentrazio-esparruan, batzuei Espainiara itzultzeko aukera eskaini zieten. Irundik sartu zen Sebastian; eta, bertako tren-geltokian egun batzuk pasatu ondoren, Santanderrera eraman zuten.

11. Bartzelonatik Vic-era (OTX-002/020)

Bartzelonan zeudela, zortzi pezetarekin bost lagunek egin zuten otordua; handik Vic-era joan eta lapiko hondarrak jan ondoren, lotara joan ziren. Mantarik ez zeukatenez, azpian koltxoi bat eta gainean beste bat jarrita oheratu ziren.

12. Vic-en pasatutako egunak (OTX-002/021)

Vic-en jatorduak zaintzen zituzten, nahiz eta gero koltxoi biren artean lo egin behar izan. Bartzelonatik sobratutako lau pezetak ondo administratu zituzten, baina ez zuten asko iraun. Egunero joaten ziren herriko tabernara porroitik ardoa edan eta kantuan egitera.

13. Teruelen eraso gogorak (OTX-002/022)

Eusko Jaurlaritzak milizianoei hamar pezeta ordaintzen zien eguneko. Dirurik gabe zeuden, eta Gironako antiaereotara joan ziren kobratzera. Gabonetan antiaereokoekin Teruelera joan ziren. Teruelen aireplanoen eraso gogorra jasan zuten, eta makina antiaereoak konpontzera Andorra izeneko herritxo batera eraman zituzten.

14. Terueletik erretretan (OTX-002/023)

Teruelen gertatutakoaren ostean, Sebastianen konpainia atzerantz-atzerantz joan zen erretretan. Kamioi batean garraiatzen zuten antiaereoarekin (1.500 bala botatzen zituen minutuko), bihurgune ostetatik bala-parrastada batzuk bota eta hanka egiten zuten. Kamioiko txoferraren herritik pasatu zirenean, txoferra bertan geratu zen.

15. Berrito Frantziara ihesi (OTX-002/024)

Otsailaren 9 batean, Portbou-ra ailegatu ziren, eta hondatutako arropa eta oinetakoek aldatu ahal izan zituzten. Handik, frantziar Kataluniako Perpignan-era joan ziren; eta, hamabost egunen ostean, Saint Cyprien-eko esparrura eraman zituzten; gerora, Argelès-ekora. Esparru hartan abesten zuten kantu bat kantatzen du.

16. San Antonio auzoko San Antonio baserria (OTX-004/002)

San Antonio auzoko San Antonio izeneko baserrian jaio zen. Itxura denez, ermita eta baserria garai berean eraiki zituzten. Ermitako elizkizunak eta gainerakoak antolatzeke, auzotarren biltzar bat zegoen Doloresen aititaren garaian. Ermitaren giltza betidanik eduki izan dute baserrian.

17. San Antonioren bederatziruena (OTX-004/003)

Dolores umea zenean, San Antonioren bederatziruena egiten zen ermitan. Auzoko neska bi bertan ezkonduak dira. Aiaitak lehenengo, eta osaba batek geroago, ermitaren mantentze-lanen ardura izan zuten.

18. San Antonio baserria kaletik gertu (OTX-004/004)

San Antonioetan meaz aparte ez zen beste ospakizunik egiten. Aita etxekoa zen, eta ama, berriz, kale-baserri batekoa. San Antonio baserria kaletik urruti egon ez arren, baserritarren bizimodua eta kaletarrena beti izan da ezberdina.

19. Baserritarrak kalera oso gutxi (OTX-004/005)

Bolaleku zaharra egon zen tokian orain erakusketa aretoa jarri dute. Kaletar ume denek jolastu omen zuten 'hamar hogeike' toki hartan, baina Doloresek edo beste baserritar batzuek ez. Baserritarra domeketan bakarrik joaten zen kalera.

20. Lehengo auzo eta baserriak (OTX-004/006)

Dolores umea zenean, auzoa famili handi bat bezalakoa zela dio. Baserrietako ateak beti irekita zeuden. Hori den hori aldatu egin dela dio Doloresek.

21. Umetako jolasak (OTX-004/007)

Jolaserako ez zuten izaten jostailu askorik, baina nahi adina olgetan zuten. 'Sakas', 'bat-bi hiru-lauke', 'hamar hogeike' edo 'txirringolatan' jolasten zuten, beti eskura zituzten gauzekin. Jakinduriaz ez, baina arduraz oraingo umeak baino nagusiagoak zirela dio. Eskolara oso gutxi joandakoa da.

22. Umetatik etxeko eta baserriko lanetan (OTX-004/008)

Amama zaintzen, aitari basora bazkaria eramaten edo beste edozertan lanpetuta, eskolara ez zen asko joaten. Ume-umetatik lagundu izan du etxeko eta baserriko lanetan. Aspertzeko astirik ez zuen izaten.

23. Baserrian beti zegoen jateko zerbait (OTX-004/009)

Goserik ez zuen ezagutu. Ardi zezina eta babarrun lapikoa ez ziren inoiz falta, eta gazta ere egiten zuten etxean. Orain haina barazki ez zuten jaten orduan. Eskolarako motxila aitaren praka barrenekin egindako poltsa bat izaten zen. Eskolatik bueltan errazionamenduko ogia eramaten zuen etxera.

24. Errazionamendua (OTX-004/010)

Goserik ez zuten pasatzen, baina gauza berriak jateko gogoia izaten zuten. Errazionamenduko gauzak hartzera kalera joaten ziren bakoitza bere txartelarekin. Ogi, olio, azukre edo txokolatea (adreiluen parekoa omen zen) hartu ahal izaten zuten.

25. Egunero ordaintzeko dirurik ez (OTX-004/011)

Dendariei ez zieten egunero ordaintzen. Diru sarreraren bat izaten zutenean, atzeratutakoak ordaintzen zituzten. Bildotsak eta gaztak saltzen zituzten. Kaleko jendeak tailerretan egiten zuten lan, eta egunerokorako diru freskoa izaten zuten.

26. Aitaita artilegintzan eta abarkagilea (OTX-004/012)

Umetako artzain lanak azaltzen ditu. Ortuari patata sartzen ere laguntzen zuten umetan. Aitaitak artile lanak eta larruzko abarkak egiten zituen. Gogoan dituen abarkagintzako lanak azaltzen ditu.

27. Abarkekin joateagatik iseka egin (OTX-004/013)

Hainbeste ardi baino gehiago edukiz gero, artilea ere Udalari eman egin behar izaten zioten. Aramaioko Oleta auzora mandatu batekin joan zen umetan, eta bertakoek burla egin zioten abarkekin zihoalako. Igandetarako zapata-parea eta arropa ondo zaintzen zuten. Eskolara joateko arropa aldatu egiten zuten.

28. Jostuna etxera arropak jostera (OTX-004/014)

Egindako arroparik ez zen egoten dendetan salgai. Jostunak etxerik etxe ibiltzen ziren, eskatutako arropak josten. Neskek prakak janztea pentsatu ere ezin zuten egin. Kuleroak jostunak egiten zituen etxean. Tela-saltzaileak ere etxerik etxe ibiltzen ziren. Barruko elastikoak telaz egindakoak izaten ziren.

29. Janzkeran ezberdintasun gutxi (OTX-004/015)

Doloresen ustean, baserritarrak eta kaletarrak antzera samar janzten ziren garai haietan. Eskolarako janzkeran ere ez du ezberdintasunik gogoratzen. Bakoitzak janzten zuenarekin konforme sentitzen zen. Arropok nola garbitzen zituzten azaltzen du. Amak ganaduen koipearekin xaboia egiten zuen. Labaderorik ez zuten, baina errekan garbitzeko harri egokiak zituzten jarrita.

30. Lixiba etxean, baina astindu errekan (OTX-004/016)

Oheko arropa zuria garbitzeko lixiba egiten zuten. Sutako hautsa eta irakitako ura erabiliz egiten zuten lixiban. Arropa astintzera errekarara eramaten zuten. Dolores umea zenean etxean ez zuten urik, baina etxe ondoan patina bai.

31. Patinako ura eskuzko bonbarekin (OTX-004/017)

Patinako ura ateratzen zutenean beti egon zen ura. Urte batzuk daramatzate patina erabili gabe, eta jada ez da betetzen. Eskuzko bonba batekin ateratzen zuten ura patinetik. Lapikorako ura, ordea, errekatik ekartzen zuten.

32. Emakumeak lan asko baserrian (OTX-004/018)

Emakumeak baserrian lan asko egiten du: gaixoak, umeak zein zaharrak zaindu, etxeko ardura, ortuarena, gaztagintza... Etxean beti jan izan dute bakoitzak bere plateretik, baina baziren ontzi bakar batetik familia osoak jaten zuten etxeak ere.

33. Eguneroko jatekoak (OTX-004/019)

Eskastasunean aitaita-amamak aintzakotzat hartzen ziren. Taloa esnearekin goizetik eta babarrun lapikoa eguerdian izaten ziren eguneroko jateko arruntak. Gauean patatak barazkiren batekin egosita, eta gainean gazta edo postrea jaten zuten.

34. Neguan Durangora artaldearekin (OTX-004/020)

Orduko janariak garbiagoak eta osasuntsuagoak zirela dio. Ganadu eta soroetan kimikarik ez zen erabiltzen. Ardiak negurako Durango aldera eramaten zituen aitak, bizpahiru hilabeterako. Durangon saltzen zituen bildotsak edota artesnea.

35. Ardi asko Otxandion (OTX-004/021)

Ardiak jeztea bukatzen zenean, udaran, mendi garaietara eramaten ziren ardiok. Negu partean aita etxetik kanpo egoten zen ardiekin. Orduko

denboretan artzain asko zeuden Otxandion. 100 bat ardiko artaldeak izaten zituzten.

36. Lehengo neguak gogorrakoak (OTX-004/022)

Neguak gogorrakoak ziren orduan. Elurragatik hilabete eskolara joan gabe egotea (pena handirik gabe) gogoratzen du Doloresek. Urtero izaten ziren metro beteko elurte bat edo bi.

37. Elur-mokilka jolasean (OTX-004/023)

Elurte handietan elurra bera urtzen zuten etxerako ura hartzeko. Doloresek erreka izoztuta ezagutu zituen. Elur-mokilka (pilotaka) jolasten auzoko zuten neska-mutilak. Futbolean errepidean jolasten zuten.

38. Pilota bai, baina panpinarik ez (OTX-004/024)

Etxatxo baserrian jarri zuten lehenengo irratia. Jolaserako pilotak amak egiten zizkion trapu zaharrekin. Mutikoen zibak eta aho-soinuren bat izaten zituzten, baina Doloresek ez zuen umetan panpinarik eduki.

39. Umetatik irakurtzeko zaletasuna (OTX-004/025)

Irakurtzea asko gustatzen zitzaion umetan, baina zaila izaten zen zer irakurri bilatzea. Norbaitek libururen bat oparitzen bazion berarentzako festa bezalakoa izaten zen. Egunkaririk ez zuten etxean irakurtzen. Ezagun batek irakurtzen omen zuen egunkaria, eta Doloresi urrutiko berriak entzutea asko gustatzen zitzaion.

40. Lehenengo aldiz bizikletan (OTX-004/026)

Etxean erreteila egiten ziharduen gizon baten bizikleta hartu zuen ezkutuan Doloresek, umea zenean. Aldats beheara ondo joan zen, baina frenoak zer zen ere ez zekien, eta ortu baten hesiaren kontra gelditu zuen bizikleta.

41. Neska bakarra etxean (OTX-004/027)

Neba-arreben artean zaharrena eta neska bakarra izan zen. Orduko denboretan andrazkoak etxeko beharrak egiteko zeudela uste zen. Gizonezkoek, ahal bazuten, joaten ziren ikastera, baina andrazkoak ez garai haietan.

42. Mekoleta auzoko eskolara (OTX-006/002)

Mekoleta auzoko eskolara joaten zen, etxetik kilometro bi eta erdira. Eguraldi onarekin ez ziren eskolara joaten, ardi zaintzan edo itaurrean egin behar izaten zutelako. Ikaskideak bera baino gehiago joaten ziren eskolara, eta bera atzeratuta ibiltzen zen. 30en bat ikasle elkartzen ziren, Zelaieta eta Mekoleta auzoetakoak. Maistra gasteiztarra Otxandioko ostatutik bizikletaz joaten zen eskolara.

43. Guardia Zibila gogor euskararen aurka (OTX-006/003)

Trinidad izeneko maistra izan zuena oraindik bizi da, 98 urterekin. Eskolak erdaraz izaten ziren, eta Josek ez zekien erdaraz berba egiten. Guardia Zibilek bere amandreak euskaraz ez egiteko nola esaten zioten gogoratzen du. Euskaraz egitearren eskolan ez zituzten zigortzen. Josek zortzi urterekin ez zekien erdara zer zen ere. Otxandio aldea oso euskalduna zen.

44. Zazpi urterekin Aramaiora morroi (OTX-006/004)

Zazpi urterekin Aramaiora joan zen morroi, mutilzahar eta neskazahar asko zeuden baserri batera. Mutilzaharrok ikazkinak ziren. Astoarekin belar garraioan erabiltzen zuten Jose umea. Goizeko zazpitan jaiki eta kalera joaten zen esnea eramatera.

45. Aramaion eskolan. Etxemina (OTX-006/005)

Aramaion joaten zen eskolara, non otxandiar abade bat zegon maisu. Eskolan ikasle aurreratua omen zen. Aramaion zegoela negar asko egiten zuen, etxeminez. Txokolatearekin eta berba xamurrekin goxatzen zizkioten negarrok. Lau hilabetez egon zen Aramaion, tripa truke. Jose Aramaiora joan zen egunean, aitona-amonak negarrez geratu ziren etxean.

46. Eskolara eguraldi txarrekin bakarrik (OTX-006/007)

Etxeko terrenoak zati txikiak ziren, eta ardiak zaindu egin behar izaten zituzten. Eguraldi onekin ardiak zaintzea egokitzen zitzaion, eta txarrekin, berriz, eskolara joan ahal izaten zen. Euria zenean aterkirik ez, eta eskolara zaku bat burutik behera jarrita joaten ziren. Abarka oinetakoekin goizean hankak busti, eta gauean artean hankok halaxe izaten zituzten. Elurtetan ez ziren joaten eskolara, eta ganadu guztia etxera ekartzen zuten.

47. Ardi zaintzen. Gaztak Durangora (OTX-006/008)

Ardiak inoren sorotara, edota basoan pinudi landatu berrietara sar ez zitezen zaindu behar ziren. Bildotsak erostera tratanteak etxera etortzen ziren. Jose 16 urterekin hasi zen gaztagintzan. Gaztak egin eta ostiralean Durangora joaten zen etxerik etxe saltzen. Larunbatetan Durangoko plazan saltzen zituen.

48. Lehengo gaztagintza (OTX-006/009)

Esnea 35-36 gradutan epeldu, legarra (gatzagia) egin eta hartzen utzi, prentsatu, gatzia eman, lehortzen utzi... gazta nola egiten zuen kontatzen du.

49. Gaztaren merma eta prezioa (OTX-006/010)

Gazta mamia (gaztanbera) oihal finean batuta sartzen zen moldean, eta gero molde prentsari jarri. Harri batzuen pisuarekin prentsatzeko zituzten gaztak. Gazta mamia ez baldin bada ondo xehatu, gazta barnean hutsuneak sortzen dira eta gerta liteke horko gazurak ez irtetea prentsatzeko. Zazpi litro esnerekin egindako gaztak, bost hilabete pasatuta, kilo bat inguru edukitzen zuen. Egin eta 15 egunera salduz gero, berriz, kilo eta laurden. Josek azkeneko saldu zituen gaztak, kiloa hamabi ogerlekotan (60 pezeta) saldu zituen.

50. Gazurarekin txerriak hazi (OTX-006/011)

Gazurarekin txerriak hazten zituzten. Gazura bukatzen zenean, galdaran egositako patata eta erremolatxa ematen zieten, azaroan, San Martin inguruan, txerriok hiltzeko. Gaztari zahartzen denean sitsa egiten zaio. Gatzatua nola egiten den azaltzen du. Jose gazta mami (gaztanbera) asko jandakoa da.

51. Behi-esnea saltzeko kooperatiba (OTX-006/014)

“Quesero”ak etortzen ziren etxera ardi-esnea erosten, eurek gazta egiteko. “Lecheruek”, berriz, goizero etortzen ziren etxeko behi-esnea jasotzera, gero

Gasteizen saltzeko. Hileko lehenengo egunetan Gasteizera joaten ziren esnea kobratzera. Baserritarrek kooperatiba bat eratu zuten behi-esnea saltzeko. Kamioia erosi eta txofer bat jornalean hartu zuten Otxandion zehar esnea jaso eta Gasteizera eramateko.

52. Esnari ura botatzen zioten (OTX-006/015)

Gasteizen esnea bi prezio ezberdinetan saltzen zuten. Bata, esne osoa, litroa 3 pezetatan, "de primera" deitzen ziotena; eta bestea, urarekin nahastua, 2 pezetatan ("de segunda"). Baserritarrek debekatuta zuten etxean esnari ura botatzea.

53. Baserria utzi egin behar (OTX-006/017)

Garai batean gazta eta behi-esne salmentetatik bizi ziren, baina pentsuak garestitu eta kontrolak zorrotzu zirenean, esnearen salneurriak berdin jarraitzen zuelarik, kalera joan behar izan zuten lanera. Baserritik bizi ahal izatea oso zaila bilakatu zen. Orain lau artzain geratzen dira Otxandion, eta lauren artean lehen Otxandio osoan zeuden beste ardi dituzte, eta herriko terreno guztiez baliatzen dira ardiokin.

54. Belar meta asko etxe inguruan (OTX-006/018)

Josek 22 urte izan zituen arte, soroetako lanak idiekin egiten zituzten. Gero behiek hartu zuten idien lekua uztarrarian. Zaldi bat ere erabiltzen zuten baserriko lanetarako. Ganbara txikia zuten etxean, eta belar meta asko egin behar izaten zituzten.

55. Ira eta satsa. Soroko lanak (OTX-006/019)

Irailean hasita elurra agertu arte, inguruetak mendi guztietatik iratan jarduten zuten, ganaduen azpiak egiteko. Satsa orgatan eramaten zuten soroetara, sardez zabaltzeko. Aitona-amonek belarra igitaiaarekin ebakitzen zuten bezala, Joseren denboran segaz egiten zen lan hori. Lurra lantzeko eginbeharrak eta erabiltzen zuten tresneria azaltzen ditu.

56. Lurra lantzen (OTX-006/020)

Lurra goldatu eta lantzen zuten, eta mokilak bazeuden aitzurrez apurtu. Mokil-jotzeko zurezko tresna berezi bat ere bazuten. Lan guztiak eskuz egiten ziren. Arto eta babarrun asko ereiten zuten soroetan, garia gutxiago. Artoaren landara babarrunentzako parra bezala baliatzen zen.

57. Artoa eta errotak. Jatorduak (OTX-006/021)

Artoarekin taloa eta morokila egiten zuten. Artoa sutondoan lehortu eta gero urkuldu (aletu) egiten zen, errotara eramateko. Errota bi zeuden: bata Otxandion bertan eta bestea Mekoleta auzoan. Amandreak egiten zituen talo pilak gogoratzen ditu. Gosarian taloa eta esnea hartzen zuten. Eskolatik bueltan babarrunak urdaiarekin jaten zuten, ogi pusketa batekin. Gero sagarren bat-edo jan eta atzera eskolara joaten ziren.

58. "Mantekeroa" eskolara bidean (OTX-006/022)

Eskolara bidean edozein lekutan edaten zuten ura; iturrietan ganaduak egindako hanka zuloetatik ere. Sarritan hankak bustita edukitzen zituzten umetan, baina ez ziren inoiz gaixotzen. Eskolara kilometro bi eta erdi zeuden arren, egunero bazkaltzera etxera etortzen ziren, bazkalostean berriro eskolara joateko. Umeak beldurtzeko erabiltzen zuten "Mantekeroa"ren kontu batzuk aipatzen ditu.

59. Eskekoak eta "Mantekeroa" (OTX-006/023)

Eskolarako bide bazterretan hainbat txabola zeuden, eta haietan eskekoak egoten ziren. Behin, eskolatik etxera zihoazela euria hasi zen eta txaboletako batean sartu ziren babes bila, ilunetan. Bertan bi eskeko zeuden eta egundoko sustoa hartu zuten. Eskekoak ez zuten fama txarrik, baina "Mantekeroa"ren ipuin beldurgarriak entzuten ziren.

60. Amandrearen ipuin, kanta eta errezoak (OTX-006/024)

Eskeko eta "Mantekeroa"ren ipuinekin ez ezik, sorgin kontuekin ere beldurtzen zituzten umeak garai hartan. Joseren amandrea beti kantetan edo errezetan egoten omen zen. Amandreak Joseri loak hartzeko kantatu edo ipuinak kontatzen zizkionetan, sarritan amandreak berak hartzen omen zuen lo. Amonak kantatzen zion kantu bat abesten du Josek. Euskaraz errezatzen ere irakatsi zion amandreak.

61. "Katalintxu lora ederra"ren iloba (OTX-008/005)

"Katalintxu lora ederra" abestiko Katalin bere izekoa zen. "Miss Otxandiano" zen eta karlisten banderarekin desfilarazi zioten. Kantaren nondik norakoak azaltzen ditu. Otxandioko bandak egin zion abestia.

62. Errementarien herria (OTX-008/006)

Otxandio herri ezaguna zen. Errementarien asko egon da beti herrian. Otxandion lehen lanpar (zirimiri) asko egiten zuen.

63. Otxandioko plazan agertu zen karlista (OTX-008/008)

Espainiako gerra zibila hasi zenean, Gasteiztik Otxandiora karlista bat heldu zen autobusez. Txapel gorri eta guzti heldu zen plazara, pilota-partiduak zeuden bitartean. Bertan zeuden mutil batzuk bere kontra joan ziren. Alkateak kartzelara sartu zuen eta gauez Bilbora eraman zuten. Hurrengo egunean, tropak heldu ziren Otxandiora. Juanek dena ikusi zuen aurrez aurre.

64. Tropak herrira sartu osteko bonbardaketa (OTX-008/010)

Gerran, tropak herrira heldu eta hurrengo egunean heldu ziren aireplanoak. Bezperan, baxu-baxu ibili ziren begira; gorrienak zirela zioten. Hirugarren egunean, bonbak botatzen hasi ziren. 60 biztanletik gora hil zituzten, denak herrikoak bertakoak. Frontea hurbil zuten eta bertako etxeetan egon ziren asko; beraienean ere egon ziren "Compañía ametralladora"koak. Beraien auzoko bat Durangoko bonbardaketan hil zuten.

65. Gasteiz bonbardatzeko ahalegina (OTX-008/011)

Zazpi hilabetez egon zen frontea beraien etxe ondoan. Erromatar zubi bat bota zuten, bide bat egiteko eta handik Gasteiz bonbardatu ahal izateko. 500 bat soldadu egon ziren bertan etxe ugaritan sakabanatuta.

66. Soldaduek baserritarrei errekiatu (OTX-008/012)

Gerrako soldaduak etxerik etxe joaten ziren jateko bila; eta, askotan, behia edo txerria ere kentzen zuten jan ahal izateko. Beraiei txerria errekiatu zieten. Aitak kapitainarekin egin zuen berba eta azkenean, txerria hil ostean, zati bat eman zieten beraiei.

67. Bando berekoak elkarri erasoka (OTX-008/013)

Legution, San Andres egunez eman zuten ofentsiba, eta uholde handiak egon ziren. Vidal teniente koronelak eta ingeniari batek bando berekoak borrokan jarri zituzten gauez; eta beraiek Ollerieta auzotik alde egin zuten, bertako planoak hartuta. Gainerakoak goizez konturatu ziren elkarri erasoka zebiltzala. Otxandio hartu zuteneko eguna zelakoa izan zen kontaktzen du.

68. Francori bidea galarazi, nor zen jakin gabe (OTX-008/014)

Otxandio hartu zuteneko eguna zelakoa izan zen kontaktzen du. Bonbardaketak hasi eta hirugarren egunean hartu zuten Otxandio. Alemaniarrek aireplano bat zuten inguruan. Hirugarren egunean, "estado mayor" jarri zen udaletxean eta herriko jendea jarri zuten bidegurutzeetan herriko sarrera-irteerak zaintzen; kontra egiten ziotenei tirokatzeko agindua zuten. Halako batean, Gasteiz aldetik gizon bat herrira sartzeko ahaleginetan azaldu zen, baina Juanen osabak, zaindari lanetan zebilenak, ez zekien zein zen. Gizon horri ere sarrera galarazi zion, Franco zela jakin barik. Francok lana ondo egin zuela-eta, zoriondu egin zuen.

69. Bizkaia guztia hartu zuen Francok (OTX-008/015)

Otxandiarrak idiekin munizioa garraiatzen aritzen ziren. Hurrengo frontea Lemoakoa zen, fronte gogorra izan zen. Bilbo inguruko burdinazko gerrikoak ez zuela ezertarako balio izan esaten du, izan zutelako nondik sartu. Bilbo hartu ostean, abertzale asko, Eusko Jaurlearitzakoak barne, Frantzia aldera joan ziren. Bere arreba ere Gorlizko ospitaletik Ingalaterrara eraman zuten.

70. Juan Ajuriagerra odol gehiago ez sortzeko errenditu zen (OTX-008/016)

Juan Ajuriagerra beraien auzokoa zen; eta bestaldekoek, Francoren aldekoek, Bizkaia hartu zutela ikusterakoan, errenditu egin zen. Kartzelara sartu zuten eta heriotza-zigorra kondenatu zuten. Ez zuten hil Aita Santuaren eskariz. Bere emaztearen aitapontekoa izan zen, eta beraien ezkontzan ere aitapontekoa izan zen.

71. Juan Ajuriagerra (OTX-008/017)

Beraien auzoko Juan Ajuriagerra Bizkaiko EAJko burua izan zen. Bertara heldu zen lehen automobila berak ekarri zuen Juanen emaztearen bataiorako, bera izan baitzen aitapontekoa.

72. "El abuelo" aireplanoa (OTX-008/018)

Bonbardaketetan, aireplanoak hirunaka etortzen ziren. Lehenago "El abuelo" joaten zen errebisioa egiten; gorrien aldekoa zen "El abuelo". Gorrien abiazioa oso ahula zen. "El abuelo"ri buruzko zalantzak argitzen ditu. Italiarrak eta alemaniarrek II. Mundu Gerrarako prestatu ziren bertan. Otxandion zibilak baino ez zituzten hil.

73. Gerraosteko zigorrak eta giroa (OTX-008/020)

Ubiden andrazko batzuei ilea motz-motz ebaki zioten gerraostean, baina Otxandion ez. Otxandion erreketek asko egon ziren, nahiz eta abertzaleak nagusi izan. Beti egon izan da batzokia herrian, besterik ez zen egon.

74. Alarma entzun eta ezkutatzera (OTX-008/021)

Bonbardaketan, jende asko elizpean babestu zen. Alarmak jotzen zuenean, arineketan joaten ziren bertara. Legutiotik abisatzen zieten noiz zetozen.

75. Herriko tailerretako lan motak (OTX-008/022)

Herrian ez zen errementari asko egon gerrarako materialak egiten; iltzeak, pala, aitzurrak, ferrak... egiten ziren batez ere herriko tailerretan. Urre gorriarekin ordaintzen zen lehen lan hori. Diru asko irabazten ei zuten herritarrek.

76. Gerraosteako gose eta estraperlo sasoia (OTX-008/024)

Gerraostean herrian gose handia zegoen. Patata Gasteizera goitibeheran eramaten zuten. Jendea gaztaren gatzura eskatzen joaten zen etxeetara, ona baitzen. Hala ere, baserrian ez zuten goserik izan beti baitzegoen zer jan. Hirietan gose gehiago pasa zela dio. Gerraostean jendea estraperloaz baliatu zen dirua egiteko.

77. Gerraosteko alkatea (OTX-008/025)

Etxe ondoko errotatik jasotzen zuten argindarra. Karlistak ziren errotariak eta horregatik mantendu zen errota zabalik. Nazionalak sartu osteko alkatea ere bertakoa zen, Bizkaiko lehen alkatea izan zela esaten ei zuten, Otxandio izan baitzen hartu zuten lehen herria. Ez zekin erdara oso ondo eta laster kendu zuten agintetik.

78. Garia eta patata kupoa entregatu behar (OTX-008/027)

Gerraostean garia eta patataren kupoa entregatu egon behar izaten zuten udaletxera. Otxandio sekula ez da garirako zonalde ona izan, bertako lurrak ez ziren horretarako emankorrak. Entregatu ezean, isuna ordaindu behar zuten.

79. Gerra aurretik Ameriketatik bidalitako irratia (OTX-008/029)

Bere osaba bat Kubara joan zen eta arropak saltzen aritu zen bertan. Dirua egin zuenean, Estatu batuetara joan zen eta likore fabrika bat sortu zuen. Diru asko egin zuen eta hark bidali zien lehenengo irratia gerra aurretik.

80. Irratia eta herriko telefonoa (OTX-008/030)

Ameriketako osabak irratiz izan zuen Otxandioko bonbardaketaren berri. Otxandiora deitu zuen ezbeharraren berri izateko. Otxandion beti egon da herriko telefonoa.

81. Gerraren jarraipena irratiz (OTX-008/031)

Beraiek irratiz jarraitu zuten nazionalen ofentsibaren ibilbidea eta inguruan gertatzen zena.

82. Euskara galarazi arren egiten zen (OTX-008/033)

Francok euskara erabiltzea galarazi zuen. Elizan ere umeei izen euskaldunak jartzeko arazoak zeuden. Ez zuten uzten berba egiten; hala ere, Otxandion beti egin da. Legution, ostera, ez. Gutxik egiten zuten erdaraz.

83. Bederatzi urtetatik artzain (OTX-008/035)

Bederatzi urterekin hasi zen artzain lanetan osaba batekin batera. Ehundaka litro batzen zituzten egunero. Gasteizen saltzen zuten.

84. Ama arabarra (OTX-010/002)

Amaren familia Araiatik etorri zen Otxandiora eta bertan okindegia jarri zuten. Horrez gain, orga batekin garraioan egiten zuten, Nafarroatik ardo, gari eta beste ekartzen zutelarik. Araian, Albenizko errotan bizi ziren. Otxandioko Langarikar guztiek Araian dituzte euren erroak.

85. Koldobika edo Luis (OTX-010/003)

1931. urtean jaio zen, eta Koldobika izena jarri zioten. Gerraostean izen euskaldunak galarazi zituzten, eta berari Luis jarri zioten agirietan, baina jendeak Koldo bezala ezagutzen zuen. Koldo Errepublika garaian jaio zen, eta orduan ere euskal izenekin egon omen ziren arazoak, baina kleroaren aldetik bakarrik. Koldok orain Koldo sinatzen du, baina lehen, badaezpada ere, Luis sinatzen zuen.

86. Umetan mojen eskolan (OTX-010/004)

Otxandioko Urigoiena kalean jaio zen. Aita ere kalekoa zen. Baserria ezagutu zuen nekazari lanetan, jornalean, aloberan, jardun zuenean. Gaur egun adinduen egoitza dagoen lekuan mojen eskola zegoen, eta hara joaten zen lau urte zituenean, uniforme-brusatxo bat jantzita. Neskatila-mutikoak elkarrekin egoten ziren. Kantuan eta olgetan ematen zuten denbora mojekin.

87. Gerrako lehen bonba (OTX-010/006)

Lagunekin jolasean zebilela hasi zen lehen bonbardaketa, eta eurengandik gertu erori zen lehen bonba. Ihesi joan ziren etxera. Etxean ez egoen inor, eta herria kez estalita geratu zen.

88. Hildako asko gerra hasi zen egunean (OTX-010/007)

Bonbaren ondoren, Koldok ez zuen ezer ulertzen, eta emakume guztiak negarrez ikusi zituen. Omega lantegia bertan zegoen, baina gerran suntsituta geratu zen. Bonbardaketa baretu zenean, jendeak San Bernabe mendira joateko deia jaso zuen. Amak eskutik oratuta joan zen hara. Koldoren osaba bat egun hartan hil zen, zauri larriengatik. Denera 50 bat lagun hil omen ziren egun hartan, familia osoak barne.

89. San Bernabetik Basaguenera (OTX-010/008)

Hildakoen artean, Otxandioko 22 urteko soldadu bat zegoen. San Bernabera iritsi baino lehenago, itzuli egin ziren; eta, autobus batean sartuta, Basaguenera joan ziren. Bertako baserri batean egon ziren 1937 urtera arte. Basagurengo etxe batean botikina zegoen, eta Koldoren arrebak zuen zauria han sendatzen zioten egunero.

90. Mañariko Urkuletan, ama zaurituak artatzen (OTX-010/010)

Frankisten erasoak Basaguenera heldu zenean, Mañariko Urkuleta baserrira joan ziren. Erasoaldietan kobazulo batean babesten ziren. Eguna iluntzear zegoenean, abertzaleek zauritutakoak ekartzen zituzten, eta Koldoren amak eta egiten zuten erizain lana. Pagoabarrez egindako andetan ekartzen zituzten zaurituak odola zeriela.

91. Zornotzatik Bilbora (OTX-010/012)

Mañaritik Zornotzara joan ziren, mantak eta zakutan sartuta eramanda. Izara guztiak bendak egiteko apurtu zituzten. Zornotzan aurreneko gaua kale gorrian eman zuten. Handik, ahal izan zuten moduan, Bilbora joan ziren. San Frantzisko kalean bizi izan ziren. Sirenen hotsekin Cantalojas zubi ondoko tunelera sartzen ziren babes bila.

92. Aita Deustuko zubian lanean (OTX-010/013)

Bilbon 3-4 hilabete eman zuten. Frankistak gerturatzean, Miraballeseko Avellanedas-era joan ziren. Denera, 50 bat iheslarik egiten zuten lo baserri bateko ganbaran. Etxeko esnea eta patatak zituzten elikagai nagusiak. Gauetz teilatuan bala-hotsak entzuten ziren. Koldoren aitak Deustuko zubiaren makina-gelan jardun zuen lanean. Koldo eta arreba nagusia joaten ziren aitari bazkaria eramatera, San Frantzisko kalean bizi zirenean. Makina-gelatik aireplanoen erasoak entzuten zituzten.

93. Bilboko bazkariak (OTX-010/014)

Koldok oraindik gogoan du zer gustu zeukaten Bilboko Ingeñariaren Eskolako jantoki sozialean jaten zituen arroz eta garbantzuek. Milizianoek txokolate asko edukitzen omen zuten. Bilboko denda guztiak itxita zeuden. 1939an etorri zen errazionamendua. 1938. urtea amaitzear zegoela itzuli ziren etxera. Urte horretan bertan, eskolan jai izaten zuten Francoren armadak beste hiri bat hartzen zuen bakoitzean.

94. Anaia bat preso eta bestea ihesi Frantzian (OTX-010/015)

Frankistek Bilbo hartu zutenean itzuli ziren Otxandiora, 1938. urtearen amaiera aldera. Koldoren anaia bat Santanderren harrapatu zuten, eta beste

batek preso jausi aurretik Frantziara ihes egitea lortu zuen, beste dozena bat lagunekin. Alemanengandik ihesi muga pasatu behar izan zuten berriro, eta Langileen Batailoian sartu zituzten bizpahiru urtetarako.

95. Osaba galdu zuen gerran (OTX-010/016)

Preso hartu zuten anaia gazteena laster itzuli zen etxera. Gerra hasi zen egunean hil zioten osaba bat, baina ez zuen beste seniderik galdu gerra denboran.

96. Etxera itzuli ziren (OTX-010/017)

Otxandiok bonbardaketa asko jasan zituen; eta, Koldo eta familia Bilbotik itzuli zirenean, etxea erdi suntsituta zegoen, beste hainbat etxe bezala. Beste etxe batera joan ziren bizitzera. Gerraostean otxandiar askok zituzten senideak kartzelan. Aita Bizinai tailerrean hasi zen lanean; gerra aurretik, arduradun lanpostua zuen han. Omega lantegiak marrazketa linealeko kurtsoak ematen zituen Zentro Republikanoan.

97. Astiro-astiro bizimodua aurrera (OTX-010/018)

Aitari Bizinai tailerrean oso baldintza kaskarretan itzuli zioten gerra aurrean zuen lanpostua. Koldoren arreba bi neskame joan ziren, anaia bat tailerrean hasi zen eta berak 14 urte zituela jornalean, "aloberien", nekazaritza lanetan ekin zion, orduko pezeta bat edo bi irabazten. Behin amari entzun zion norbaitek Pilarika egun batean ira ebakitzen zortzi pezeta irabazi zituela. Bada salatu egin omen zuten, eta egun horretan lana egiteagatik 9 pezetako isuna jarri.

98. Abadegaiak agintean administrazioan (OTX-010/019)

Abadeek domekatan lana egitea galarazten zuten. Isunak-eta Udaleko idazkariak jartzen omen zituen. Orduko administrazio lanpostu askotan abadegaiak sartu omen ziren.

99. Eskolan errezoak eta 'Cara al Sol'a (OTX-010/020)

Otxandiora itzuli eta eskolan jarraitu zuen. Errezoak nahitaez, Cara al Sol abestu, domekatan formatuta mezara… eskola maisuak faltaren bat nabariz gero, falta zenak makila zigorra jasoko zuen. Ehun bat lagun izaten ziren eskolan, neskak eta mutilak aparte. “Somatén”eko kidea izan zuen maisu Koldok.

100. Otxandion denak egiten zuten euskaraz (OTX-010/022)

Orduko eskolak beldurgarriak zirela dio Koldok. Eskolan batere ez, baina kalean denak euskaraz mintzatzen ziren. Neskek, ordea, kalean erdaraz egiten zuten. Otxandion kalean lasai egiten zuten euskaraz, baina Gasteizera joan eta euskaraz jardunez gero, errieta egiten zizuten.

101. Neskak bakarrik kalean erdaraz (OTX-010/023)

Otxandion denek egiten zuten euskaraz, gizon, andre eta mutikoek. Neskatilak kalean erdaraz jarduten ziren, baina etxean euskaraz. Euskarazko izenak ez ziren onartzen. Eskolako maisu erdaldunaren seme biek ikasi zuten euskara.

102. Hika, zuka edo berorika (OTX-010/024)

Gurasoei eta adinduei zuka egin behar zaie berba, baina lagun artean hika egiten da. Kuadrillako neskekin ere hika erabiltzen dute. Alkate, mediku eta horrelakoei zuka zuzentzen ikasi zuten, eta abadeei, berriz, berorika.

103. Medikuak eta Seguritate Soziala (OTX-010/025)

Mediku behar handirik ez omen zegoen Otxandion. Norbait hiltzen zenean sinatzeko besterik ez, Koldoren esanetan. Botika bazegoen herrian. Medikuak ez zuen kontsultarik; abisua bidaltzen zitzaion eta gaixoa bere etxean artatzen zuen. 1946 urte inguruan ezarri zen Seguritate Soziala Otxandion, eta mediku zerbitzua doan zuten. Gerra aurrean bazegoen medikua, eta hari esker gerran zaurituetako asko ez omen ziren hil.

104. Emaginak eta injekzio jartzaileak (OTX-010/026)

Injekzioak herriko bi edo hiru emakumek jartzen zituzten. Emaginak bi zeuden, Koldoren izeko Juanita haietako bat.

105. Pixa eginda ospelak sendatzen (OTX-010/027)

Neguak gogorrak izaten ziren. Eskolatik irten eta korrika etxera joaten ziren, epelera. Belarrietan eta eskuetan ospelak eta itzebagiak izaten zituzten. Ospelok sendatzeko eskura pixa egitea ona omen zen.

106. Elurte handiak Otxandion (OTX-010/028)

Gerraostean Koldok gogoan du elurte handi bat. Hilabetean Gasteizera esnerik eramaterik ere ez zuten izan. Apendize larrialdi batean, Legutioraino arteko bidea, zazpi kilometro, pikatxoia eta palarekin garbitu zuten gaixoa eramateko. Aitak etxean euriaren ura biltzeko ur-andela jarri zuen.

107. Argindarra eta ura etxetan (OTX-010/029)

Askotan joaten zen Koldo amarekin Beheko Errekako labaderora arropak garbitzen laguntzera. Zinkezko galdara batean garbitzen zituzten. Labadero asko zeuden Otxandion. "Chimbo" markako xaboia, lixiba eta anila erabiltzen zituzten garbiketako. Etxeetan ez zegoen artean urik. Argindarra bazuten, baina neguan bakarrik. Aramaiotik ere ekartzen zuten argindarra. 1953. urtean etorri zen Iberdueroren argindarra. Ura ere urte berean sartu zuten etxeetara. Bonbillak argitzeko lain argindar, XIX. mendearen bukaeratik izan dute Otxandion.

108. Gizon asko etxean (OTX-012/002)

9 neba-arreba aurrera ateratzeko behar asko egin zuten bere gurasoek. 5 neba ziren eta ama domeka arratsaldetan errekarra joaten zen astelehenerako tailerretako arropak garbitzeko. 14 bat urterekin hasten ziren beharrean orduan.

109. Etxeko banaketa (OTX-012/003)

Beraien etxea zelako zen azaltzen du. Sutea (sukaldea) handia zen, beheko sua zuena. Goian lau logela handi zituzten, bakoitzean bi ohe zeuden. Sute ondoko gelari "kuartu ilune" esaten zioten eta berak han egiten zuen lo.

110. Komuna bai, baina dutxarik ez (OTX-012/004)

Jaiotetxean komuna era bazuten, olazkoa. Dutxarik ez zutenez, udan erreka ondoko putzura joaten ziren: neskak alderdi batera eta mutilak beste batean. Neguan balde zabalean sartuta garbitzen ziren.

111. Etxeko garbiketak belauniko egin behar (OTX-012/005)

Argindarra beti ezagutu du etxean. Etxeko ola belauniko jarrita zelan "arena"tzen zuten gogoratzen du. Pasilloa handia zen eta lan handia izaten zuten.

112. Etxeko jeneroarekin egin zuten aurrera (OTX-012/006)

Suteko beheko suan galdara izaten zuten eta bertan egosten zuten dena. Beraien errentan bizi ziren eta bertako soloan gauza asko jasotzen zituzten. Arto-irinarekin egindako morokila eta esnea afaltzen zuten gauero; goizetan, ostera, taloa esnearekin. Hori dela-eta, ez zuen goserik ezagutu. Irin bila errotara joaten ziren, herrian bertan zuten. Txerria urtero hiltzen zuten. Untxiak eta oiloak ere bazituzten.

113. Errotara joaten zirenekoa (OTX-012/007)

Gaur egun bere neba zaharrena aritzen da soroan. Militonen errotara joaten ziren zorroarekin. Mutilak joaten ziren errotara.

114. Arropak errekan garbitzen (OTX-012/009)

Arropak eskuz garbitzen zituzten, txinbo xaboia erabiltzen zuten. Lehenengo arropak beratzen jartzen zituzten eta gero erreka harri batean jota garbitzen zituzten. Errekan andre asko batzen ziren. Zuriei lixiba apur bat botatzen zien.

115. Korta eta soloko lana mutilek egiten zuten (OTX-012/010)

Kortako lana nebek egiten zuten, baita bertako garbiketak ere. Soloko lana ere batez ere mutilek egiten zuten.

116. Txingarrekin berotutako lisagailua (OTX-012/011)

Arropa lisatzeko makina zelako zen azaltzen du. Lisagailua berotzeko beheko suko txingarrekin betetzen zuten. Sukaldeetara txapak heldu zirenean, beste mota batekoak heldu ziren.

117. Koltxoia hustu garbitzeko (OTX-012/012)

Koltxoiak garbitzeko artilea soltatzten zuten. Eguzkitan jarri eta makila batekin jotzen zuten nasaitzeko. Ostean berriro josten zuten koltxoia egiteko.

118. Artoaren lanketa (OTX-012/013)

Artoaren lanketa azaltzen du. Etxeko bi gela erabiltzen zituzten artoa zabaltzeko, sikatzeko. Garandu ostean eramaten zuten errotara. Artoaren "trunkue", txokorra, ganaduari ematen zieten. Etxeko atartean zuritzen zuten artoa.

119. Jeneroa etxerako baino ez, saldu barik (OTX-012/014)

Etxeko jeneroa etxerako baino ez zuten izaten. Bertakoak ez ziren plazara joaten, normalean Aramaio aldekoak etortzen ziren bertako plazara. Esnea lantzean behin saltzen zuten.

120. Pernila, buzkantzak eta txorizoak (OTX-012/015)

Pernilak, urdaiazpikoa, sutean bertan eskegitzen zuten. Pernilari gatza ematerakoan, leku fresko batean jartzen zuten ez baitzegoen hozkailurik. Buzkantzak eta txorizoak zelan egiten zituzten azaltzen du. Txerria etxe ondoan erretzen zuten eta atartean txikitu.

121. Orrazkera eta apainketa (OTX-012/017)

Bere ahizpak apaintzen zien ilea: ebaki, permanentea... Gasteizko zein Otxandioko ile-apaindegira joaten ziren. sekula ez da makillatu, baina ezpainak margoztu bai. Depilazioa.

122. Neskame Galdakaon, Bilbon eta Donostian (OTX-012/018)

Leku desberdinetan egon zen neskame lanetan: Galdakaoko okindegi batean hiru urtez, beste hiru urtez Bilboko Elkano kalean eta Donostiako Internacional hotelean zerbitzari 3 uda.

123. Neskame zegoela denetariko lanak (OTX-012/019)

Galdakaon neskame zegoela lan oso gogorrek egokitu zitzaizkion, arropa asko garbitu behar izan zuen, betiere eskuz. Handik Bilboko etxe batera joan zen eta han oso pozik egon zen dontzeila lanetan. Donostiako hotel batean gehiago irabaziko zuelakoan zenez alde egin zuen.

124. Arreoa prestatzen (OTX-012/020)

Neskame zegoela irabazitakoa beretzat izaten zen. Donostian zegoela mutil-laguna zuenez, izarak-eta erosi zituen arreoa prestatzeko. Neguan Otxandion josten ikasten aritu zen arreoa osatzeko.

125. Donostiako Internacional hotela (OTX-012/021)

Donostiako Intenacional hotelean ibili zen zerbitzari lanetan. Turista asko egoten ziren eta zerbitzariak ere asko izaten ziren, behar asko izaten zuten.

126. Diputatuaren alabaren arropak jasotzen zituen (OTX-012/023)

Neba-arreba asko izan arren ez zuten goserik pasatu. Izekoa Bermeokoa zen diputatu baten etxean egon zen lanean. Bertako alabaren arropak ekartzen zizkien eta jaunartzea ere haren soinekoagaz egin zuen Milagrosek.

127. Gerran alde egin behar (OTX-012/024)

Otxandiora frontea sartu zenean, Mañarira joan ziren. Handik Urdulizera eta Berangora egin zuten alde. Bilbo hartu zutenean bueltatu ziren etxera, eta dena hondatuta zegoela ikusi zuten. Bere neba eta amandrea behiarekin joan ziren; hori dela-eta, ez zuten esne faltarik izan, sikiera. Aita sasoi hartan Santoñako kartzelan izan zuten.

128. Bermeon egon ziren diputatu baten etxean (OTX-012/026)

Otxandioko lehen bonbardaketa herriko jaietan, Santa Mañetan, izan zen. Bonbardaketa sumatu orduko, zubi azpira joan ziren; handik ikusi zuten bonbardaketa. Handik Oletara (Aramaio) joan ziren. Ostean, Bermeora joan ziren bere izeko han baitzegoen inude-lanetan diputatu baten etxean. Diputatu horrek alde egin zuten mugaz bestaldera. Diputatu horren semea Nestor Basterretxea eskultorea da.

129. Intendentziatik etxerako jakiak (OTX-013/002)

Nebarik zaharrenak intendentzian jarduten zuen lanean, eta etxerako jakiak ekartzen zituen kuarteletik. Beste neba bat Urdulizen geratu zen morroi, eta urte batzuk eman zituen bertan. Otxandiora itzuli zirenean, errazionamenduko gauzak udaletxean jasotzen zituzten.

130. Aduana eta aduanazainak (OTX-013/003)

Otxandiora itzuli berritan, amak babarrun, irin, etab. Arabatik ekartzen zituen, etxean ez baitzuten ezer. Arabarekin mugan aduana zegoen, eta, besteak beste, ubidear aduanazain bat eduki zuten Otxandion. Aduana non egon zen azaltzen du.

131. Milizianoak etxean (OTX-013/004)

Milagrosek ez du Guardia Zibilik ezagutu Otxandion. Legution bazeuden, eta handik etortzen ziren Otxandiora. Gerra denboran, frontea herrian egon zenean, Bilbo inguruko miliziano bi eduki zituzten etxean lo egiten. Jende oso formala omen zen. Orain gutxi arte gorde dute haiekin hartu-emana.

132. Bonbardaketa herriko jaietan (OTX-013/005)

Milagrosek ez du gerra aurreko oroimenik. Gerra Zibileko lehenengo bonbardaketa Otxandioko jaietako laugarren egunean izan zen. Aurreko egunean, bera lagunekin udaletxeko balkoian zegoela, Txapel Gorri bat “Viva España”ka ibili zen herriko plazan. Aita “Bizkaitarra” zen, eta Santoñako kartzelan eduki zuten preso.

133. Maistra oso elizkoia zen (OTX-013/007)

Maistra, doña Petra, erdalduna zen. Gogorra zen baina ondo irakasten zuen. Maistra oso elizkoia zen, eta ikasleak elizako zutargiak edota eliza bera garbitzera eramaten zituen. Arrosarioa egunero erreztatzen zuten eskolan. Abadea astean behin etortzen zen eskolara, dotrina irakasten. Eskolako pisu batean neskek eta bestean mutilek ikasten zuten.

134. Dotrina eta mezak euskaraz (OTX-013/008)

Zapatuan ere joaten ziren eskolara. Abadea orduan etortzen zen, dotrina irakastera. Elizan ere ikasten zuten dotrina, euskaraz irakatsita. Abadea herrikoa zen. Meza ere euskaraz ematen zuen.

135. Erljio ardurak (OTX-013/011)

Milagrosen seme biak izan ziren monagilloak. Gurasoek hartzen zuten orduan umeak mezara eramateko ardura. Aste Santuan fraideak etortzen zirenean oso sermoi gogorrek egiten zituzten.

136. Aste Santuko prozesioak (OTX-013/012)

Lehengo prozesioek herri osoari ematen zioten buelta. Ostiral Santu egunean hilkutxa eramaten zuten. Prozesioan zihoazen santu, Ama Birjina eta beste aipatzen ditu. Erramu Domekan elizpeko buelta bakarrik egiten zen, bedeinkatutako erramuekin.

137. Garizuma eta bijilia (OTX-013/014)

Garizuman bandak eta txistulariek ez zuten jotzen plazan edo kaletan, harik eta Pazko egunera arte. Milagrosen familian musikari asko daude. Lehen denek egiten zuten bijilia (haragi-hustea).

138. Gabonak etxean. Arrandegiak (OTX-013/015)

Gabonetan bisigurik ezean, txitxarroa erretzen zuten parrillan. Bermeotik Gasteizera ekartzen zuten arraina, eta Otxandion bi arrandegi zeuden. Gabonetan familia zabala elkartzen zen. Arrainaz gain, konpota eta turroia ere izaten zuten. Afaria, tradizioz, azarekin hasten zuten.

139. Errege magoak, eguneroko jakiak, ardo-zopak (OTX-013/016)

Oinetakoak leihoan jarri, eta erregeak panpinatxoa ekarriz gero, umeak oso pozik egoten ziren, nahiz eta panpina kartoizkoa izan. Etxean oiloak, untxiak, txerriak etab. izaten zituzten. Goserik ez zuten inoiz pasatu. Eguerdian baba-lapikoa txorizo eta urdaiarekin, eta gauean taloak esnearekin. Gabonetan ardo-zopak ere hartzen ziren etxean.

140. Inauteriak, Kandelario eta Santa Agedak (OTX-013/017)

Inauterietan txerri muturrak arrautza-irinetan pasatuta eta tostadak jaten zituzten. Mutilak andre jantzita ibiltzen ziren. Kandelario Egunean meza entzun eta kandelak bedeinkatzen zituzten. Santa Agedatan afari-merienda egiten zuten etxean. Mutilak kantuan joaten ziren batzen, makila eta otzararekin, eta jasotakoarekin afaria egiten zuten. Lehen, gizonezkoak bakarrik joaten ziren Santa Ageda batzen. Gabonetan auzoko mutil batzuk etortzen ziren etxera eta denak kantuan aritzen ziren.

141. Herriko jaietan elurrarekin egindako limonada (OTX-013/019)

Santa Mariñak, herriko jaiak, bezperatik hasi eta hiru egun irauten dute. Domekan "errepetiziñua" egiten dute. Errepetiziño egunean, San Bernabeko elur-zulotik [neberie] elurra ekartzen dute herri guztiarentzako limonada prestatzeko. Milagrosek bere akorduan beti ezagutu du ohitura hori. Jaietako zezenak ez zaizkio asko gustatzen, baina dantzak [jantzak] bai.

142. San Juan eta San Pedrotako suak (OTX-013/020)

San Joanetan, herrian zehar sei lekutan pizten dute sua, eta txistua eta danbolina surik su ibiltzen dira. Suak San Joan eta San Pedro bezperetan pizten dituzte. San Joan bezperan gazteak orturik ortu ibiltzen dira letxugak batzen, gauean entsaladan jateko.

143. Eskolako jolasak. Etxean lan asko (OTX-013/022)

Eskola denboran autorik ez zegoenez, lasaiago jolasten zuten. Sokasaltoka, kanikekin eta sakekin ere ibiltzen ziren. Orduan neskak ez ziren mutilekin jolasten. Mutilak frontoira joaten ziren jolastera. Bolatokira olgetan ez, baina gerra denboran aireplanoen erasoetatik babesteko bai joaten zen. Etxean bost mutil ziren, eta nesketan nagusia bera zenez, etxeko lan asko izaten zuen.

144. Ama alargun sei umerekin (OTX-014/002)

Okindegi ondoko etxean, okindegi parekoan gero, eta ezkondu zen etxean azkenik, beti errentan, etxe askotatik pasatu da Fernando. Bera kaletarra da, baina ortua edo soroa beti izan du. Bost urte zituela hil zitzaion aita. Ama alarguna josteko makinarekin etxerik etxe ibiltzen zen lanean.

145. Lan mota asko leku anitzetan (OTX-014/003)

Fernandok dio berak ez zuela goserik kendu 25 urte izan zituen arte. 14tik 17 urtera arte baserrietan egiten zuen lan, orduko kobratzen, edota basoan. Gero Bittor Landaren tailerrean hasi zen lanean. 18 urterekin soldaduskara boluntario joan zen beste lagun batekin. Leon eta Badajozen ibili ziren hegazkintza sailean. Soldaduskatik itzuli eta hiru urtez jardun zuen Eibarren fresatzeko makinak egiten Nikolas Correaren lantegian.

146. Otxandion kooperatiba sortu (OTX-014/004)

Eibarren zegoela ezkondu egin zen. Hamabost bat lagun elkartuta, Otxandion kooperatiba bat sortzea pentsatu zuten. Rosman izeneko kooperatiba eratu zuten, Talleres Otxandiano ere esaten zitzaiona eta gaur egun Ulma taldean dagoena. Soldaduska aurretik nobio zebilen otxandiar batekin ezkondu zen Eibarren.

147. Eskolara kontzientzia handirik gabe (OTX-014/005)

Eskolan laurogei bat lagun ibiltzen ziren, goiko pisuan mutikoak maisuarekin eta behekoan neskatilak maistrarekin. Eskolara joaten ziren, baina orduan ez zen pentsatzen ezertarako balioko zuenik hark. 14 urtera arte egon zen ikasten.

148. Amarekin beti erdaraz. Neskekin hartu-emanak (OTX-014/007)

Ama ez zen euskalduna, eta harekin erdaraz egin zuen beti. Anaiekin euskaraz, baina arrebeekin ere erdaraz egiten zuen. Dena dela, bai eskolan bai soldaduskako hegazkintzako ikastaroetan, ahozko erdara erabiltzen arazoak izaten zituen. Eskolan-eta neskekin hartu-eman gutxi izaten zuen. Erromerietan dantza [jantza] egin nahi izanez gero, mesedez eskatu behar izaten zitzaien neskei jantza egiteko. Kalabaza asko hartzen zituen.

149. Otxandion jaiero erromeria (OTX-014/008)

Jazbanak jai guztietan jotzen zuen plazan. Inguruetako herri askotatik etortzen zen jendea dantzara Otxandiora. Musika bandak, txistulariek edota bateriadun jazbanak jotzen zuten plazan. Dantza helduan egiteko, elizarekin ez zuten izaten arazorik. Mutilek dantza egiteagatik musikariei ordaindu egin behar izaten zieten. Neskek ez zuten ordaintzen.

150. Arropak eta ohitura sozialak (OTX-014/009)

Domeketan arropa onak jantzi izan ditu betidanik Fernandok. Ezkontzetara, berriz, trajez edo jantzia estreinatu barik joanez gero, jendea gutxietsi egiten zen. Kanean ere, laneko arropekin ibiltzea lotsatzeko kontua zen.

151. Hiritarrak eta herritarrak (OTX-014/010)

Herrien artean ez zegoen ezberdintasunik. Herrietako jendea irekiagoa da hirietakoa baino, Fernandoren ustetan. Gaztetan Legutioko jendearekin izaten zituzten ika-mikak; jende harroa omen zen Legutiokoa, eta euskaraz oso gutxi zekiten.

152. Limitaduko terrenoak (OTX-014/011)

Errekatik harantzako terrenoak Aramaiokoak dira, eta "Limitadue" esaten diote. Otxandiok Limitaduko terreno asko erabiltzen ditu; herriko eskolak han eraiki ziren. Limitadua Otxandiok ustiatzen du, baina jabetza Aramaiorena da.

153. Emakumeak pinuak landatzen (OTX-014/012)

Basolanetan mutikotan pinu-zuloak egiten ibili zen. Pinuak landatzen emakumeek ere jarduten zuten lehen. Lantegietan ez, baina basoan emakumeak aritzen ziren lanean Otxandion. Baserri handiek jendea hartzen zuten jornalean. Etxe askotan behi bat edo bi zaintzen zituzten. Ezkondu eta gero aitagin-amaginarrebeekin bizi izan da, eta haiek etxean behi bat zuten.

154. Basoko lanak. Tailerrak (OTX-014/013)

Lehengo basolanak oso gogorrak ziren, dena eskuz egiten zelako. Zuhaitzak bota eta gerriak atera eta gero hondarrak ikatza egiteko erabiltzen ziren. Baserriarrek idiekin arrastaka enborrak atera basotik, eta gero kamioitan eramaten zituzten. Bittor Landaren tailerrean balantzak, autoentzako puzgailuak eta orgentzako balantzak egiten zituzten, besteak beste. Otxandion beti egon dira tailerrak, baina lehen diru gutxi irabazten zelako jendea kanpora joaten zen lanera.

155. Kooteratibaren hasiera (OTX-014/014)

Kooperatiba sortu zutenean, konpetentzia areagotzearekin bat, soldatak igotzen hasi ziren eta Otxandioko industria berpiztu egin zen. Bazkideko 50.000 bana pezetako ekarpenarekin jarri zuten martxan kooperatiba, bigarren eskuko makina gutxi batzuk erosita. Elorrioko Funkor konpainiarentzako birringailu, errota eta beste ekoizten hasi ziren. Geroago arrabol ekoizpenak eman zion iraupena lantegiari.

156. Mutikotan egindako lan gogorrak (OTX-014/019)

Basolanetan euria eta elurrarekin ere jarduten zuten, mutikotxoak izan arren. Gogoan du hiru lagun, 13-14 urte artekoak, joaten zirela Anbotora oinez, egun guztia pikatxoia eta palarekin lan egin eta buelta Otxandiora. Berrizera, berriz, bizikletaz joaten ziren lan berdina egitera. Euria egiten bazuen soldata galtzen zuten.

157. Elur zuloak eta txondorrak (OTX-014/020)

Elur zuloak [neberie] egon omen ziren Otxandion. Txondorgintzan laguntzen ibilitakoa da Fernando. Pago egurra pilatu eta zoiekin [zoixa] nola estaltzen zuten dio. Aramaio partean txondor asko egiten zen. Botatzen ziren zuhaitzen

gerriak saldu eta hondarrarekin ikatza egiten zen. Iduriak [irubixek], etxeetako sutontzietarako apur bat erretako pago egur abarrak, nola prestatzen zituzten kontatzen du.

158. Basoko lan gogorrak (OTX-014/021)

Anboton bazuten lo egiteko txabola, baina nahiago izaten zuten etxera itzuli. Basoan, ordea, txabolan geratzen ziren. Horrela bizitzen, Otxandiotik alde egiteko irrikaz zegoen Fernando. Jatekoa amak poltsan jarritakoa izaten zen. Bazkaldu bakarrik egiten zuten, ez hamarretakorik ez meriendarik. Txondorra egosten zegoela nola zaintzen zen kontatzen du. Ikazkinek jornailean egiten zuten lan.

159. Errementariak Otxandion (OTX-014/022)

Errementariak egur-ikatzetik harrikatza erabiltzera pasatu ziren. Otxandio errementari askoko herria izan zen. Kate, ferra eta iltzegintzan jarduten ziren asko. Ekoizpena biltegitara saltzen zuten. Burdina kanpotik ekartzen zen.

160. 25 urtera arte, goseak (OTX-014/023)

Etxean ez zen egoten jateko nahikorik, baina soldaduskan ondo jan zuela dio. Eibarren apopilo egon zenean, mahaira ateratakoa baino gehiago nahi bazenuen jan, aparte ordaindu behar izaten zen. Ezkondu zenean hasi zela nahikoa jaten dio Fernandok. Bilbotik-eta etortzen omen ziren Otxandiora etxerik etxe ibiltzen ziren eskekoak. Mekoletako errotara bidaltzen zuen amak irin bila. Behirik ez zuten, eta azunbre erdi esnerekin konpondu behar izaten ziren etxean.

161. Legutiora errazionamenduko ogi bila (OTX-014/024)

Gabonetan ez zen egoten jateko ezer berezirik etxean. Baserrietan hobeto konpontzen ziren janarekin. Fernandok behiak batzen ezkondu eta gero ikasi zuen, emaztearen etxean. Aitaginarreba errementari zaharrari bere lanagatik eskuak gogortu egin zitzaizkion, eta behiak suhiak batu behar. Gerraostean Legutiora joaten zen errazionamenduko ogi soberakinak eroatera, bertakoek ez zutelako jaten ogi hori.

162. Senideak gerra denboran (OTX-016/002)

Aitaren familiako 11 neba-arrebak bizirik irten ziren gerra denboran. Beste izeko bat eta lehengusina nola hil zituzten kontatzen du. Patxi justu gerraostean jaio zen. Anaia bat Ameriketara artzain joan zen eta lau urtez ibili zen han. Anaia zaharrek kontatzen zizkieten gerrako kontuak; aitak, ostera, ez zuen hortaz hitzik egiten. Behin Patxi EAjrako hautetsi zuten, baina aitaren aholkuz ez zen berriz aurkeztu.

163. Artzaintza transhumantea (OTX-016/004)

Hamar urte zituela, neguan, aitarekin artaldea hartuta Arteara joan zen, eta bertan hiru hilabetez egon, eskolara joan barik. Udararen ere ez zen asko joaten eskolara, eta 14 urterekin utzi egin zion. 13 urterekin Sondikan egon zen artzain. Joan-etorria, artaldearekin, oinez egiten zuten. Negu bat Abadiñoko Matiena auzoan ere pasatu zuten.

164. Durangon eta Otxandion lanean (OTX-016/005)

Eskolan ondo ibilitakoak ofizioa ikastera joaten ziren, baina bera Durangoko tailer batean hasi zen lanean. 22 urte zituela tailerra Otxandiora etorri zen.

Biznain lantegi handiak tailer hori erosi egin zuen, konpetentzia kentzeko. Langileak Bizinain jarraitu edo Durangon gelditzearen aukerarekin azaldu ziren bat-batean. Azkenean Patxik Otxandioko Aulasa lantegian hastea erabaki, eta bertan jardun zuen erretiroa hartu arte.

165. Otxandioko tailerrak (OTX-016/006)

Gaztetan ez zegoen lan faltarik Otxandion. Eibarrera lanera joaten ziren batzuk kooperatiba sortu zuten herrian, eta hark asko lagundu zion bertako industriari. Kooperatiba hori gaur egun Ulma taldean dago.

166. Eskola Mekoletan. Durangon Jesuitekin ibili zen (OTX-016/007)

Eskolan hasi zenean, ezpainak oso margotuta zeraman "Ezpan pintto" gaitzizeneko maistra bilbotar bat zuten. 6-7 urterekin hasi zen Mekoleta auzoko eskolan, eta euskaraz egiteagatik jolas-orduan zigortu egiten zituzten. Hurrengo maistra, Gasteizkoa eta Trinidad izenekoa, ez zen hain gogorra izan. Geroago, Durangon lanean zenean, jesuitekin marrazketa ikasi zuen.

167. Otxandioko neskek herritik alde (OTX-016/008)

Durangoko Estancona lantegiak ordainduta joan zen Jesuiten eskolara, marrazketa ikastera. Durangon lana egin zuenean izekoren etxean bizi zen. Arreba bat Durangora ezkondu zenean haren etxera pasatu zen. Neskek ez zuten Otxandioko tailerretan lanik egiten. Otxandioko neskak hiriburuetara joaten ziren neskame eta nobio bila. Ezkondu eta kanpoan bizitzen geratzen ziren. Horrek herria "amatatzen" ziharduela dio Patxik.

168. Emaztegai bilaketa neketsua (OTX-016/009)

Neskek ez zuten nahi izaten Otxandion ezkontzerik. Gai honetaz nobia ohi batekin izaten zituen eztabaidak kontatzen ditu. Azkenean haserretu egin ziren. Aldi batean neskatan ibili barik egon ondoren ezagutu zuen emaztea izango zen errioxar emakumea. Bizpahiru urteko ezkongai-aldiaren ondoren, Patxiren etxera ezkondu ziren.

169. Emaztegaia erdalduna (OTX-016/011)

Emaztegaia erdalduna zen, eta ezkondu zirenean Patxiren aita eta anaia bi etxean bizi ziren. Denek erdaraz egiten zioten, eta emazteak ez zuen euskara ikasi.

170. Neguko artzaintza (OTX-016/013)

Gabon ostean joan eta apirilera arte egoten ziren ardiekin etxetik kanpo. Hainbesteko bat ordaintzen zioten terrenoen ugazabari. "Barrutiek" esaten zitzaien haiei. Elurrik egiten ez zuen lekuetara joan behar izaten ziren neguan ardiekin. Berak hamabi urte zituela gogoratzen du Otxandion urtarrilean elurra egin eta martxora arte ez zutela lurrik ikusi. Orduan artzainak ez zeuden nahikoa prestatuta. Gero ikasi zuten udan belarra ihartu eta negurako gordetzen. Patxik ezkondu zen arte eduki zituen ardiak, latxa arrazako 160 bat buru.

171. Ardiak, txakurra eta astoa (OTX-016/014)

Txakur bi erabiltzen zituzten, artzain-txakurra eta polizia-txakurra gurutzatutako arrazakoak. Txakur bati ondo irakatsiz gero, gero berak irakasten die ondorengoei. Sondikan ardiekin eta txakurrekin kaletik nola

pasatzen ziren. Astoa ere eramaten zuten, arropak-eta eraman eta bildotsik jaioz gero ere eramateko. Txakurrak askotan ezer esan gabe egiten zuen bere lana.

172. Txakur kontuak (OTX-016/015)

Txakurrak ardiak sorotik nola ateratzen zituen. Txakur gogorak zituen gustuko Patxik; komeni zenetan ardiei haginka egingo zietenak. Bai txakurrak eta bai astoak, emeak izaten zituzten Zelaieta baserrian. Astoak urtero egiten zuen umea. Aitak behin aldeko txakurra etxeko ganbarako leihotik behera bota zuen.

173. Txakur kontu gehiago (OTX-016/017)

Aitak, txakurzain famatua bera, beste artzain bati haren artaldeko ardirik onenaren truke eman zion bere txakurra. Txakur kontu gehiago.

174. Txakurrari letaginak ebaki (OTX-016/018)

Txakurrak beste txakur batengatik asko ikasten du. Bere anaiak ardiei haginka larregi egiten zien txakur bati letaginak ebaki zizkion aliketekin. Ardi-txakur ona omen zen. Txakur kontu gehiago.

175. Asto laranja zalea (OTX-016/019)

Astoa bere kumearekin goizean basora bidaltzen zuten larrera, eta ilunkaran astoa beti kalean aurkitzen zuten, laranja azalak jatera joanda. Astoa harrapatzeko komeriak egiten zituzten. Bere gainera igoz gero, astoak berehala botako zuen asto gainekoa.

176. Astoaren astakeriak (OTX-016/020)

Astoa bizikletekin beldurtu egiten zen, eta horrexegatik zaldu zieten Zelaietarrei. Astoak egindako astakeriak.

177. Astakeria gehiago (OTX-016/021)

Anaia zaharrari saiheitsak apurtu zizkion ostikoz. Astoak azkeneko kumea izan zuenean, umetokia irten zitzaion eta bertan hil zen.

178. Asto mutur fina (OTX-016/022)

Astoari etxekoa ez, baina erreka ura gustatzen zitzaion edateko. Txorizoa ere gustatzen zitzaion. Soroan lanean, askaltzeko pago zulo batean freskuran utzitako txorizoak astoak jan zizkien.

179. Eta asto azkarra (OTX-016/023)

Astoak bera lotzen zuen katea haginekin askatzen ikasi zuen. Goizeko hiruretan katea arrastaz zeramala etxetik ihes egin zuen. Aita atzetik joan zitzaion, katea inork lapur ez ziezaion. Asto azkar hori hil zenean, bere azkeneko kumea geratu zen etxean. Ogi zatia baino hobea omen zen kume hori, Katalintxo izenez.

180. Abereen ernaltze lanak (OTX-016/024)

Asto emeak ar beharra duenean, berak aurkitzen du, beste edozein aberek bezala. Ahariak bildotsik egin gabeko ardi gazterik ez du hartzen, jo eta bota baino, zaharragorik baldin badauka aukeran. Arkazteak ahari gazteekin jartzen zituzten.

181. Ardiak ernaltzeko garaiak. Bildotsak (OTX-016/025)

Ardiak abuztuan aharituz gero, bildotsak Gabonetan jaiotzen dira. Artzainek nahiago izaten zuten bildotsok martxoaren hasieran jaiotzea. Aharia ez zen ardiekin ibiltzen sasoi egokira arte. Arkerak garaiko arazoak. Normalean bildots bat izaten zuen ardiak, baina ondo gobernatuz gero bikotzak ere jaiotzen ziren. Intseminazio artifiziala.

182. Bildots bikotzekin lan gehiago (OTX-016/026)

Urte batean 120 arditik 40k bikotzak izan zituzten. Ahariarengatik omen zen, baina hura zuria zen, eta bildots gehienak beltzak. Lazoak jarri zizkieten bikotzak ezagutu ahal izateko. Bikotzak zaintzea lan asko ematen zuen.

183. Biberioia eta bildots umezurtzak (OTX-016/027)

Biberioia ez zuten erabiltzen, ardiren bat hil eta haren kumeak beste baten esnearekin hazteko ez bazen behintzat. Oso arraroa izaten zen ardi batek bere kumea ez zenari esnea ematea.

184. Bildotsa gaizki zetorrenetan (OTX-017/001)

Bildotsak jaiotzeko kontrako eran zetozenean, Patxiren anaia gazteenari deitzen zioten, baita beste artzain batzuek ere, bildotsari buelta emateko bere esku txikiak aproposak ziren-eta. Bikotzek hankak nahasi badakartzate tripan, bereiztu egin behar dira ondo jaio daitezten. Batzuetan komeriak egiten zituzten bildotsa onik ateratzeko.

185. Bildots larruak eta artilea (OTX-017/003)

Etixerako bildotsen bat hiltzen zutenean, haren larrua bildots umezurtz bati gainetik jartzen zioten, hildakoaren amak onartu eta haz zezan. Bildotsa nola larrutzen zuten azaltzen du. Orduko garaitan bildots larrua ondo ordaintzen zuten. Artilea ere prezio onean saltzen zen.

186. Aharia hautatzea (OTX-017/004)

Ileagatik aukeratutako ahari bat ekarri zuen aita Gorbeiatik. Artzain lagunek ile ekoizpenaren aldea ikusi zutenean, haiek ere ahariak aldatu egin zituzten. San Joan inguruan mozten ziren ardiak. Ardi mozteak festa handia izaten zen.

187. Bildots eta ardien larruak. Artilea (OTX-017/005)

Ardiak pozik egoten ziren ilea kentzen zutenean. Bildots larrua 1.000 pezetatan saltzen zen, eta artile kiloak 35ean. Ile kapak zakutan sartzen zituzten, "laneroek" kamioian eraman zituzten. Orain dela hamabost bat urte arte horrela egiten zen. Ahari onen larruak uztarriak estaltzeko erabiltzen ziren.

188. Idiekin lanean. Ardi tratoan (OTX-017/007)

Uda eta udazkenetan aita idiekin ibiltzen zen jornalean goizetik gauera arte, edozeinen soroak lantzen. Patxik dio euren etxea ardiek atera zutela aurrera. Frantziarrak etortzen omen ziren artaldeak erostera. Aita ez zen ardiak saltzearen aldekoa, baina prezio ona lortzen zuenean saldu egiten zituen.

189. Gazta saltzera Durangora (OTX-017/008)

Lehen, gazta gutxiago egiten zen. Anaia gaztak otzaran hartuta Durangora joaten zen saltzera, autobusean. Patxik Durangon egon zen denborako oroimen ona du. Lanetik jesuiten eskolara, eta gero izekoren etxera joaten zen kartetan jolastera.

190. Uztarrigintza (OTX-017/010)

Uztarrigilea Aramaitik etortzen zen. Berak halaxe eskatuta, pagondoa botatzen zuten. Ondoren errekan beratzen utzi zortzi bat egunean, eta bigun-bigun zegoenean egiten zuen uztarrria. Egun batean bukatzen zuen lana, aldika idien buru eta adarretan probatuz. Hamar bat urte irauten zuten uztarriek.

191. Ferratokia. Behor pertxeroia (OTX-017/012)

Uztarrigilearen lana ez zen garestia izaten. Urtean 40 bat uztarri egingo zituen uztarrigileak. Zelaieta auzokoek eurek egindako ferratokia zuten. Ferratzailea, ordea, Dimatik etortzen zen. Gaur egun ferratokiaren txabola egurra edukitzeko erabiltzen dute. Idiak kendu zituztenean behor handi bat ekarri zuten, pertxeroi bat, Axpetik. Anaia biren artean sats gurdikada bat erantsi zioten behorrari, eta orduan konturatu ziren hura ez zela idi pareta. Baina gurdikada erdi eramateko gauza bazen.

192. Astoa eta behorra gurdi-abereak (OTX-017/014)

Behor pertxeroia oso estimu handian izan zuten. Paradara eramaten zuten, baina behorrak ez zuen umerik hartzen. Basoko behorrak ere bazituzten. Sats gurdikadak erripan gora tiratzeko, astoa lotzen zioten behorrari lagun egiteko.

193. Sats garraioan behor birekin (OTX-017/015)

Behin, aldeko baserriko behorra ere erabili zuten sats garraioan. Hainbat arazo izan zituzten harekin.

194. Behorretik behorrera alde handia. Ardi satsa (OTX-017/016)

Ardi satsa ganaduena baino hobea dela dio Patxik. Ardiarena erre eta xehatu egiten den modura, behiarena oreka bezala geratzen da.

195. Baserriko tresnak. Familia tertulian (OTX-017/019)

Sats sardea simaurra kargatzeko erabiltzen da, eta sats aitzurra, berriz, deskargatzeko. Lanabes asko gordetzen du oraindik etxean. Segur gaur bertan erabili du azkenekoz. Sarritan lau anaia elkartzen dira tertulian.

196. Haria egiten (OTX-017/022)

Artile kapa garbitu eta harrotu ondoren, kardatu egiten zen, gero maratilarekin haria egiteko. Haria etxerako prestatzen zuten, jertseak eta galtzerdiak egin ahal izateko. Karda lana azaltzen du.

197. Lisaburdinak eta abarkak (OTX-017/024)

Txingarrak sartuta berotzen ziren lisaburdinen ondoren burdinazkoak etorri ziren, txapa gainean berotzekoak. Abarka sokarik ez, baina anaiak larruzko abarkak egiten zituen. Juan Kruz anaiaren abarka lanak azaltzen ditu.

Gomazko abarken zolak zortzi egunean gastatzen omen ziren. Hanka bustiekin sarritan ibili arren, lehengo jendea gutxiago gaixotzen zen.

198. Amandrearekin gaztagintzan kantetan (OTX-017/025)

Gaztagintzan amandrearengandik hasita ilobarik gazteeneraino ibiltzen ziren. Umetan amandrearengandik gertu egoten ziren, gazta mami eske. Amandrea Dimatik etorritakoa zen. Amandreari ikasitako kanta bat abesten du.

199. Anaia Ameriketara artzain (OTX-017/027)

Aita ez zen oso kontalaria baina amandrea bai. Suaren inguruan arto zuritzen nola egiten zuten gogoratzen du. Amandreak zioen Ameriketara ere txakurrak ortozik ibiltzen zirela, baina hala ere Patxiren anaia bat hara joan zen artzain, eta amandrearen neba biren barri jakin zuen bertan.

200. Kanta batzuk. San Joan eguna. (OTX-017/029)

Aandrearen kanta batzuen letra zatiak gogoratzen ditu, San Joan gauekoa horietako bat. Oraindik pizten du sua San Joan bezperan eta baita San Pedro bezperan ere. Betidanik egin den modura, lizar abarra jartzen du atean San Joan egunean. Lehen soroak bedeinkatzen ziren. Abadeak gazta truke ardiak ere bedeinkatzen zituen.

201. Birraitona ehizan (OTX-019/002)

Birraitonak azeriak harrapatzen zituen, eta handik datorkio Azeri ezizena beraien familiari. Bere birraitonaren garaian ehizarako izaten ziren ohiturak eta teknikak azaltzen ditu.

202. Bonbardaketan, haurra galdu zuen amak (OTX-019/004)

Gerra garaian, bonbardaketa izan zenean, bere ama haurdun zegoen; baina bonbetatik babesten zebilela, haurra galdu zuen.

203. Bonba itsuak (OTX-019/006)

Garai hartan, ezin zen neurririk hartu umeak ez izateko. Familia gehienetan ziren 5-10 senide inguru. Bonbardaketan, 3 senide hil ziren familia batean; orduan gertatutakoa kontatzen du.

204. Lehenengo paperak, eta geroago bonbak (OTX-019/008)

Gaur egun, oraindik, bonbardaketan hildako 2 neska daude identifikatu gabe. Bonbak bota aurretik, paperak bota zituzten. Bonbardaketan hildako eta zauritu asko izan ziren. Bonba batek familia bereko 3 ume hil zituen.

205. "¡Viva España!" oihuka Otxandion (OTX-019/010)

Frankismoaren aldeko gizon bat Otxandioko plazan oihuka aritu zen "¡Viva España! ¡Viva Cristo Rey!"; udaletxeko kartzelara eramane zuten, gerora atera egin zuten eta hurrengo egunean izan zen bonbardaketa Otxandion.

206. Bonbetatik ihesi (OTX-019/015)

Bonbardaketa ikusi zuteneko oroitzapenak gogoan ditu: zelaietan babestu ziren gauera arte; zaurituen bila etorri zirenean, jendeak Otxandiotik alde egin nahi izan zuen eta beraiek nola moldatu ziren azaltzen du.

207. Bonbardaketa lasaitzean, etxera (OTX-019/017)

Bonbardaketa apur bat lasaitu zenean, etxera itzuli zen beraien familia osoa. Bonba batzuk erori ziren baserri inguruan, eta txikizioak eragin zituen.

208. Senideak hil eta bera zaurituta (OTX-019/022)

Gerran, Alonsotegira joan ziren ardiekin. Bertan zeudela, bonben erasoek senide batzuk hil eta beraiek zauritu zituenekoa kontatzen du.

209. Hankako zainak ebakita (OTX-019/023)

Aurreko pasartearen jarraipena da. Gerran bonba baten metrailak hanka zauritu zion "Azeri"ri. Etxera bueltatu zen lehengusuarekin eta anaiarekin; eta, hanka garbitu ostean, zainak ebakita zituela ikusi zuten.

210. Alonsotegitik Otxandiora ardiekin (OTX-019/024)

Gerran alargundu berri zen osaba Alonsotegirik Otxandiorainoko bidea bakarrik egin zuen behi-uztarri eta gurdiaekin. Bere aitak eta aitak ere gauza bera egin zuen 500 ardiekin; aitite aurrerago zihoan bidea libre zegoen edo ez ikusi eta abisatzeko. Bidean pasatakoak kontatzen ditu. Kontakizunak hurrengo pasartearen jarraitzen du.

211. Herrira bueltatzean bizitakoak (OTX-019/025)

Gerran Alonsotegitik herrira bueltatu ziren ardiekin. Bidea luzea zen eta bertan bizitakoak dakartza gogora. Aurreko pasartearen jarraipena da.

212. Gerratik Otxandiora heldu eta ama haurdun (OTX-019/026)

Gerratean Alonsotegin egon ziren etxeok. Handik bueltatu zirenean, ardiekin egindako bide luzearen ostean, aitaren jaiotetxera heldu eta ardiak banatu zituzten. Handik beraien jaiotetxera joan ziren ama abisatzera. Ama haurdun aurkitu zuten.

213. Udaletxean aurkezteko beldurrez (OTX-019/028)

Gerratea bukatu ostean, Otxandiora etorri zirenean, udaletxean aurkeztu behar izan zuten. Ama beldur zen hango buruzagia nor zen ikusita. Bideak garbitzeko lana eman zieten.

214. Etxerako irina Forondatik (OTX-021/002)

Mekoleta auzokoko Txintxor baserrian jaio zen. Artalde handia eta 8-10 behi izaten zituzten. Tomasek etxerako irina Arabako Foronda herritik ekartzen zuen estraperloan.

215. Kaleko eskolara (OTX-021/003)

13 lagun bizi ziren etxean. 14 urterekin goizean taloa eta esnea hartuta, aitzurrarekin basora joaten zen. Kaleko eskolara joaten ziren egunero. Bazkaltzeko okindegian erositako txokolate-ontza birekin konpontzen ziren.

Mekoletako eskola egin zen arte, don Alfredo maisuarekin ikasi zuen. Txikia baina okerra omen zen maisu hori.

216. Don Alfredo maisu gogorra (OTX-021/004)

Irakurtzen eta oinarrizko kontuak egiten ikasi, eta basoan hasi zen lanean. Don Alfredo maisua zamorarra zen. Bere seme biak oraindik Otxandion bizi dira. Don Alfredo Otxandioko neska ederrenarekin ezkondu omen zen. Maisuak emandako burukoak gogoratuta, oraindik ere min hartzen du Tomasek. Euskaraz eginez gero, gogor zigortzen zituen.

217. Eskolako kontuak (OTX-021/005)

Eskolako liburuak motxilan eramaten zituzten. Neskek beheko pisuan eta mutilek goikoan ikasten zuten. Maistra eskola etxean bizi zen. Maisuak norbait gelan jolasean ikusiz gero, atzetik joanda jo egiten zuen. Jolas-orduan pilotan egiten zuten, abarketak apurtzen. Frontoi ona zuten.

218. Artilea garbitzen (OTX-021/011)

Artilea, beratzen eduki eta gero, "Chimbo" xaboia eta urarekin garbitzen zuten errekan, eta gero lehortu. Batzuek artilea erre egiten zuten edo traperoari saldu.

219. Mekoletako bidea. Erreka kontu asko (OTX-021/013)

Mekoletatik kalera harrizko bidea zegoen, "La Calzada" esaten zitzaiona. Oraindik ikusgai omen dira galtzada horren zati batzuk. Errotapeko putzu handi batean jolasten ziren. Beheko errekan, harriak jarrita, andre morderoa aritzen omen zen arropa garbitzen. Ezkailu eta ibai-karramarro asko harrapatzen zituzten. Gero, urtegia egin zenean, denak galdu ziren.

220. Abadeari makilakadak (OTX-021/015)

Ardiak basoan zirenean, afaltzen eman eta gero ardi-txakurra basora joaten zen ardiak zaintzera. Behin abade ehiztari batek ardi-txakurrari tiroa eman zion, eta Tomasen aitajaunak makilakadaz josi zuen abade hori. Ardi-txakurra ona izateko arrazakoa izan behar du, txikitatik astiro-astiro irakatsi eta jaten ondo eman behar zaio.

221. Artaldea neguan etxean. Bildotsak (OTX-021/017)

Neguan artaldea etxean egoten zen, belar iharrarekin gobernatuta, eta pentsuarekin dirurik baldin bazegoen erosteko. "Migel Handi" durangar harakinak eramaten zizkien bildotsak. Txekorrak erosten giputz bat etortzen zen. Bildotsak Gabonetatik otsailera arte jaiotzen dira. Ardi bakoitzak, normalean, bildots bat izaten zuen. Arraroa izaten zen bikoxdun ardia.

222. Ardi mozten, artilea eta traperoak (OTX-021/019)

Ekainean mozten ziren ardiak, San Joan inguruan. Eskuz egiten zen, artaziekin. Artzainek elkartuta mozten zituzten ardiok. Bildotsen bat hil, eta festa handia izaten zen moztearena. Dalmau kataluniarri saltzen zioten artile moztu berria, udaletxeko baskulan bakoitzak berea pisatu ondoren. Traperoak ere etortzen ziren artile bila. Piedratarrak etortzen ziren Durangotik trapuak erosten. Familia horren negozioak asko hazi ziren Durangon.

223. Artilea eta kapatxak. Lastamarragak (OTX-021/020)

Amonak jertseak eta galtzerdiak egiten zituen artilearekin. Tomasi ez zitzaizkion asko gustatzen galtzerdiok, baina jertse bero haiek bai. Pentsu zakuekin prakak egin, eta gero tindatu egiten zituzten. Burutik sartzen ziren brusak jantzita ibiltzen ziren. Artilea ondo prestatuta koltxoiak ere egin zitzaizketen. Horien aurretik arto kapatxekin egin ohi ziren koltxoiok. Koltxoiari lastamarraga esaten zitzaion. Oheko burkoak ere, artilearekin baino lehenago, kapatxekin egiten ziren.

224. Jostunak. Koltxoi eta abarkagintza (OTX-021/021)

Jostunak, josteko makina lepoan hartuta, etxerik etxe ibiltzen ziren arropak konpontzen. Koltxoigintza astiro egiteko lana zen, baina derrigorrez egin beharrekoa. Eurek egindako abarkak oso labainkorrak zirela dio Tomasek. Abarken zuloak burdinazko eztenekin egiten zituzten. Oraindik ere egiten ditu larruzko abarkak.

225. Txaramela. Artilezko galtzerdi latzak (OTX-021/023)

Kardatutako artilea edozein kutxetan jartzen zen lanean jarraitzeko. Txaramela (maratila) eta bere kakoa zurezkoak izaten ziren. Haria nola egiten zuten azaltzen du. Artilezko galtzerdiak hanketan ziztatu egiten zuten, eta bustiz gero oso txarrak izaten ziren. Tomasek artilezkoen azpitik beste pare bat finagoa janzten zuen.

226. Gaztagintza. Gazura (OTX-021/025)

Bildotsaren legarrarekin gatzatzen zuten ardi-esnea gazta egiteko. Lagun bat etxera etortzen zitzaion gazura edaten. Zopak eginda ere jaten zen, baina normalean txerriek hazteko erabiltzen zen gazura. Eskuz egindako gazta txikiak eramaten zituen amak astoan Durangoko plazara. Durangon gazta saltzea debekatu zutenean, Dimara joaten zen ama. Molde konikoan egiten zuten, gazta errazago ateratzeko. Egunean 5-6 gazta, eskuz prentsatuta, egiten zituzten. Gatzontziak eta esnea batzeko marmitak Legutioko latorrigileak egindakoak erabiltzen zituzten.

227. Pilar eta Mirenen gaitzizenak (OTX-023/002)

Pilar Udaletxe kalean jaio zen; kalearen izena garai batean udaletxea bertan zegoelako zen, baina orain Ospitale kalea da. “Atrillena” etxekoa da Pilar; Miren, berriz, “Camposena”. Pilarri gero “Juan arotzen” andrea esaten zioten. 10 urterekin patata jorran jarduten zen, eta 11 urterekin behiak uztartzen ikasi zuen. Ezkondu arte egon zen baserrian.

228. Umetako jolasak. Eskolan bereizketak (OTX-023/004)

Bildots hezurrekin aritzen ziren jolasean, sakan. Tokerrika jolasa azaltzen dute. Bat-bi-hiru lauka (gorde eta topatzera) eta sokasaltoka ere jolasten ziren. Eskolan hasi zirenean, dena erdaraz izaten zen. Eskolan gailetak ematen zizkieten, baina gorrien umeek gutxiago jasotzen zituzten. Bereizketa handia omen zegoen, Gorriak edo "Bizkaitarrak" alde batetik, eta Karlistak bestetik.

229. Eskolan ume asko eta zigor gogorak (OTX-023/005)

Doña Petra maistra gernikarrak Pilarren aitonari euskaraz egiten zion, baina eskolako umei ez. Ehun neskatilatik gorako ikasgelan, maiz erabiltzen omen zuen makila. Eskola non egon zen azaltzen dute. Behean neskatilek eta goian

mutilek ikasten zuten. Maisuak katxaba eta maistrak makila erabiltzen zuten zigortzeko, edo atzamarrak ipini eragin eta erregelarekin jotzen zituzten umeak. Mutilak ere ehundik gora ziren euren gelan, eta batzuk ezkailuak harrapatzeko butroiak prestatzen aritzen ziren ikastorduetan. Gerraostean ez zuten goserik pasatu.

230. Euskal izenak eskolan. Kantak (OTX-023/007)

Mirenek ez du bere izenagatik arazorik izan, nahiz eta eskolan maistrari euskal izenak ez zitzaizkion larregi gustatzen. Maistra hark basora txangoan eramaten zituenetan, espainiar kantak abesten zituzten.

231. Eskolan ikasten zituztenak (OTX-023/009)

Eskolan sei urterekin hasten ziren. Denek ikasi zuten irakurtzen, eta gehienek bordatzen ere bai. Marrazketan ere aritzen ziren, baina 115 neskatilako gela batean ikastea ez zen erraza. Ikasle bat soldaduen mantarekin egindako berokiarekin joaten zen eskolara, eta makilakadei eusteko ona omen zen.

232. Eskolako liburu bakarra (OTX-023/010)

Eskolan dena erdaraz zen. Pilar neba-arreba birekin ibili zen eskolan, eta hirurek liburu batekin ikasi zuten irakurtzen, El Cat&ocaron;n izenekoa. Lehen ume-kotxerik ez zegoen, eta umeak beti lepoan erabiltzen ziren.

233. Eskola-etxea (OTX-023/012)

Eskola-etxeak barruan tailer bat zeukan; lehenengo pisuan neskek ikasten zuten eta bigarrenean mutilek. Maisua eta maistra ere eskola-etxean bizi ziren. Neskak mutilekin harreman asko ez izan arren, laguntxoak izaten zituzten. Pilarrek esnea eramaten zion doña Petra maistrari, eta bere lehengusina batek egiten zizkion etxeko lanak.

234. Gerra aurrean mojetara. Behartsuentzako lekuak (OTX-023/013)

Eskua altxatuta sartu behar izaten zuten eskolara. 12:00etan angelusa errezatu ondoren, etxera joaten ziren, abiadura handian. Sei urtetik 14 urtera arte ibili ziren eskolan. Gerra aurretik, oso umetan, mojen eskolara joaten ziren. Edadetu elbarrientzako bazegoen egoitza bat, eta baita eskekoentzako sukalde eta geladun etxe bat ere.

235. Dotrina eta abadeak (OTX-023/014)

Zapatu goizetan eskolara joaten ziren, eta arratsaldean elizara abadearekin dotrina ikastera. Arratsaldekorra joaten ez baziren, etxean errieta izango zuten. Zazpi urterekin lehen jaunartzea egin aurretik, dotrina ondo ikasi behar izaten zuten. Zerua eta infernuaren gaineko hausnarketak. Dotrina erdaraz ikasi zuten. Orduko abadeak, konfesioak eta etxekoandreak.

236. Pilar emagin eta ama ponteko (OTX-023/018)

Marino neba txikiena jaio zenean Pilarrek 21 urte zituen, eta bere amaren emagina izan zen. Goizeko lauretatik seietara amarekin egon ondoren, bederatzi behi jetzi zituen. Amama Juliana eta Juanita "Petxa" emaginak. Umea, azkenean, Pilarrek lagunduta jaio zen. Medikiak esan omen zion Pilarri, txerrikumeak jaiotzen ikusteak asko irakatsi ziola. Jaioberriaren ama ponteko bera izan zen.

237. Mezak eta kongregazioak (OTX-023/021)

Domeka goizean mezara joaten ziren, eta arratsaldean, berriz, arrosario mezara. Neska ezkongabeak Hijas de María kongregazioko kideak izaten ziren. Mezara begizta urdin handi batekin joaten ziren. Mutilek, ordea, San Luis kongregazioa zuten. Mirenen gizona Adoradores Nocturnos elkarteko kide izan zen. Eguen Santu gauean elizara joaten ziren errezatzerara. Errezu zati bat esaten du Pilarrek. Lo ezinka dagoenean elizako kanta guztiak abesten omen dizkio bere buruari.

238. Lehengo mezak eta sakramentuak (OTX-023/023)

Lehengo mezatan sermoia pulpitutik ematen zuten. Aste Santuan fraideak etortzen ziren, eta gizonek lo hartzen omen zuten haien sermoian; orduan fraideok pulpitan joz iratzartzen zituzten. Mezak luzeak izaten ziren. Meza latinez ematen zuten, baina sermoia euskaraz. Latina “amen” esateko beste ikasi zuten. Mezara faltatzeko arrazoi bakarra gaixotasuna zen. Gaixoei etxera eramaten zieten gure Jauna.

239. Lehengo ume jaiotzeak (OTX-023/024)

Pilar goizeko bederatzietan jaio eta arratsaldeko lau eta erdietan bataiatu zuten. Amak etxean egon behar zuen irten barik harik eta bere umea hainbeste egunetan "elizan sartu" egin arte. Aurreko belaunaldikoek ez omen zuten ohitura hori eduki. Umea goizean eduki eta ama arratsalderako arropa garbitzen zebilen.

240. Emakumea erdi eta buelta lanera (OTX-023/025)

Erditzea normala baldin bazen, ez zen hain gogorra izaten. Mirenek goizeko bostetan umea izan eta goizean bertan belar lanetara joan zen zelaira. Amama Julianak eta praktikanteak lagundu zioten erditzen. Kasu batzuetan erditzera ospitalera joan beharra izaten zen.

241. Erditzea nola izaten zen (OTX-023/026)

Emakumea nola erditzen zen azaltzen dute. Umeentzako otzara eta kumak gertu egoten ziren. Karena lurperatu egiten zen. Garbitasun handia egoten zen umea jaiotzean. Pilarren izeko Basili ere emagina izan zen.

242. Bi jaiotzen arteko denbora (OTX-023/027)

Pilar eta neba-arrebak bi urtean bat jaio ziren, baina azkena 6 bat urteko aldearekin. Mirenen kasuan era antzera izan zen. Hala ere, etxe batzuetan baziren 11-13 hilabeteko tartearekin jaiotzen zirenak ere. Batzuek uste zuten umea titiko esnearekin hazten zegoen bitartean, ama ezin zela haurdun geratu.

243. Umea izan berri, baina bizimodu berdina (OTX-023/029)

Mutikoa edo neskatila zetorren igartzeko, haurdun zegoenaren itxuraz baliatzen omen ziren batzuk, baina emaitza ez oso onekin. Eguneroko jan-edana ez zuten batera aldatzen umea izateagatik. Etxean esekita izaten zuten janaria desagertzen zenean, saguzarrei botatzen zieten errua.

244. Osaba Zakarias (OTX-024/002)

Gerraostean sarna (hazteria) harrapatu zuten. Osaba Zakariasek emandako belar tratamendu batekin osatu ziren. Hilekoaren minentzako karraskila ekartzen zuen basotik. Karraskila-ura odola mehetzeko erabiltzen zen. Hormako erlojuaren pisuen lekuan, osabak eskuko bonbak jarri zituen.

245. Erremedio naturalak (OTX-024/003)

Arrautza zuringo eta piperbeltz zuriarekin tortilla antzerako bat egin eta enplastu gisa jartzen zen. Katarroa asun bainuarekin, eta erreuma, berriz, asunekin ziztatuta sendatzen zuten. Ziztaden ondoren ozpinarekin goxatzen omen zuten mina. Zaldarrentzat zartaginean berotutako kipula erabiltzen zuten. Gauean ohe ondoko mahaitxoan kipula bat jartzen zen katarroarentzako.

246. Baraualdiko listuagaz ultzera osatu (OTX-024/004)

Pilarrek ixten ez zen ultzeratxo bat zuen berran. Erizain bat ahalegindu zen sendatzen, baina ez zuen ezer lortu. Baserritar batek esanda, baraurik sortutako listuarekin bustita sendatu zitzaion.

247. Garatxoek kontrako erremedioa (OTX-024/006)

Izeko Sabinak garatxoak ziri-belarrarekin nola kentzen zituen azaltzen du Mirenek. Mediki gazte bati ere kendu omen zizkion izekok garatxook.

248. Ospelak eta hagineko mina (OTX-024/008)

Ospelak zuritutako berakatz atalarekin igurtzita sendatzen ziren. Osaba Zakariasek esaten zuen gerra denboran errekek lehortu egin zirela. Esana zen ere noizbait Mekoleta auzora joateko, elurragatik, zuhaitzik zuhaitz joan behar izaten zirela. Hagineko minarentzako erremedioa aspirina eta izorratzea dela diote lagun biek.

249. Umetan hagina galdu. Errakitismoa (OTX-024/009)

Umeak zirenean haginek bat galtzen zutenean, burkoaren azpian uzten zuten, norbaitek trukean zerbait ekarriko zirela, baina ez omen zen inor etortzen. Etxean ez, baina errakitismoa ezagutu dute Otxandion. Okelarik ez zen egongo euren etxeetan, baina esnea bai, eta gura adina. Mirenek eskolara joan aurretik, amamak emandako patata-purea esnearekin hartzen zuen gosari. Pilarrek, berriz, morokil beroa esne hotzarekin hartzen zuen. Mireni ez zitzaion gustatzen ez morokila ezta taloa ere.

250. Begitxindorrek eta makarrak. Zorriak (OTX-024/010)

Begitxindorra zeukatenean, norbaiten ipurdiari begira egoteagatik irtengo zitzaizela, eta izorratzeko esaten zieten. Begietako makarrak [pista] neguan izaten ziren. Zorriak orraziarekin kentzen zizkieten, izara baten gainean belauniko jarrita. Garbitasunak ezabatu zituen halako erasanak.

251. Arropak garbitzen (OTX-024/011)

Izarak sutako hautsarekin egozten ziren tinan sartuta. Errekan uretan eragin eta zuri-zuri geratzen ziren. Tinan jarritako ereintzak (erramua) oso usain ona ematen omen zion garbitutako arropari. Xaboa seboarekin egiten zen. Arropak errekan garbitzen ziren. Lehorre garaitan urrutu samar zegoen mendiko erreka batera joan behar izaten ziren, bazkari eta guzti.

252. Etxeko garbiketak. Komuna (OTX-024/012)

Etxeko garbiketak belauniko egiten zituzten, eskuila eta moltsoarekin. Xaboa bazuten, baina lixibarik ez. Ezkaratza (sukaldea) eta eskailerak garbitzen zituzten horrela, batik bat. Zurezko zoruari argizaria ematen zioten. Pilarrenean komuna bazegoen, baina ura norberak eraman behar zuen. Teilatuko ura batzeko andelarekin batera, komunari bonba jarri zioten. Mirenenean, berriz, ohol tarte bat izaten zen komuna. Handik egindakoak satsetara joaten ziren.

253. Garbitasun pertsonala. Ura etxeetan (OTX-024/013)

Garbitasun pertsonala galdara zabal batzuetan ura jarrita egiten zuten sukaldean, atea itxita. Udaran belar garaian, berriz, errekan garbitzen ziren. Mirenek 11 urte zituela jarri zuten txorrotako ura etxean. Pilarren etxean ur-andela handia egin zutenean, ahizpa Paulak jaso zituen obrarako material guztiak gurdian. Zaragozako langile kantari batzuek eraiki zuten ur-andela.

254. Ziztaden aurkako erremedioa. Medikua eta albaiteroa (OTX-024/014)

Intsektuen ziztadak nahiz asunarenak zazpi belarrekin (edozein zazpi belar) igurtzi behar ziren sendatzeko. Suge batzuek haginka egin arren, ez dute pozoirik; baina suge gorria arriskutsua da. Don Samuel mediku ubidearra gogoratzen dute. Medikuek ez zuen kontsultarik; abisatu ondoren etxeetara joaten zen gaixoak ikustera. Hilean hainbesteko txiki bat ordaintzen zen medikuagatik. Txerria hiltzen zenean, medikuari oparitxoak eramaten zizkioten. Oparitxook medikuari, albaiteroari eta abadeari emateko ohitura zegoen.

255. Haginak hariarekin ateratzen. Petrikiloak (OTX-024/016)

Behia intseminatzeagatik albaiteroari ordaindu egiten zioten. Umeak zirenean, haginaren bat jausteko zutenean, hariarekin lotu eta atera egiten zieten. Orduan haginak ez ziren garbitzen. Gerra aurretik zauriren bat izanez gero, mojek sendatzen zituzten. Zain tiratuak izeko Julianak belarrekin sendatzen zituen. Sendatzaileek isilean gordetzen zuten zein belar erabiltzen zuten.

256. Gerran Bilbora eta Trapagaranera (OTX-024/017)

Gerra etorri zenean, Pilarren familiakoak Baltzolako kobara joan ziren, eta handik Lezamara. Eguna Begoñako babeslekuan ematen zuten, eta gaua Lezaman. Hiru ahizpak elkarrekin egiten zuten lo han kuma batean. Aita babeslekuak egiten jardun zen Bilbon. Mirenen familiako batzuk etxean geratu ziren, baina bera eta hiru ahizpa amamarekin Trapagaraneko baserri batera joan ziren.

257. Aurreneko bonbardaketa (OTX-024/018)

Pilarren aitita etxean geratu zen ganaduekin, eta txekor batzuk saldu zizkien nazionaliei. Mirenen aititari, ordea, inguruko komun guztiak garbiarazi zizkioten. Aurreneko bonbardaketan, herrian zeuden Pilar eta Miren. Herritar batzuk iturrira edo errekarara ur bila joanda harrapatu zituen bonbardaketa hark.

258. Gerran hildakoak (OTX-024/019)

Bonbardaketa egunean, jendeak aireplanoak ikusi zituenean, paperak botatzera zetozeela pentsatu zuen. Maria Vicinay-ri seme bat hil zioten. Etxerik gehienetan galdu zituzten bi edo hiru lagun.

259. Gerraostea (OTX-024/022)

Eskolan gerraostean hasi ziren, sei urterekin. Beharrak asko, baina goserik ez zuten pasatu. Baserritarrek esnedunen elkarte bat sortuta zuten. Aita Arabara joaten zen etxerako jakiak ekartzeko. Guardia Zibila atzetik ibili zitzaion, estraperloan omen zebilelako.

260. Guardia Zibilak etxekoak bezala (OTX-024/024)

Guardia Zibilekin harreman ona omen zuten. Gehienak bertako neskekin ezkondu ziren. Neskentzako nobedadea omen zen guardia zibil baten nobio izatea.

261. Andreak igitaiarekin ira ebakitzen (OTX-026/002)

Aitak lantegian egiten zuen lan. Amak zazpi ume hazi zituen. Urrian 6-7 andre elkartu eta igitaiarekin ira ebakitzera joaten ziren. Ira Udalak emandako irasuerteetan ebakitzen zuten, soldata txiki baten truke. Eskola, udaletxe eta ospitalerako sutarako egurra kontzejupean txikitzen zuten, auzolanean. Eskolan 90-100 ikasle izaten ziren gelako; beheko solairuan neskak, eta goikoan mutilak.

262. Don Alfredo maisua. Gerra jolasak (OTX-026/003)

Don Alfredo maisuak makilarekin zigortzen zituen umeak. Zapatuetan konfesatzera joaten ziren elizara, eta konfesatu ostean gerra denborako babesleketan gerran jolasten ziren, mokilak jaurtitzen. Gero eskolara joan eta maisuaren errieta jasotzen zuten.

263. Gerra denboran, Somorrostro eta Bilbora (OTX-026/005)

Eskolan, erdara apur bat ikasi zuten; baina, bestela, beti euskaraz mintzatzen ziren. Nikolasek ez zuen arazorik izan euskaraz egitearren. Arreba nagusia 15 urterekin neskame joan zen Bilbora, eta beste arreba bat ere umezain ibili zen. Eskolan zazpi urterekin hasi, eta 11 urte zituela gerra piztu zen. Gerran aita zapadoreetan ibili zen eta umeak amarekin joan ziren; lehenengo, Somorrostrora eta, gero, Bilbora.

264. Bilbon babes-etxe onean (OTX-026/006)

Bonbardaketa hasi zenean, ganbaran gorde zen. Gero, gurasoekin txabola batera joan ziren gordetzera. Hurrengo egunean, Otxandiotik alde egin zuten. Aita zapadoreetan sartu zen. Bost neskame zeuden Bilboko La Salveko etxe batean egon ziren. Hango neskame nagusiak eskola apur bat eman zien. Jateko eta jostailu nahikorekin, oso ondo egon omen ziren han. Pilotalekua eta igerilekua ere bazuten.

265. Aita preso. Gerratik bueltako eskola eta jolasak (OTX-026/007)

Aitak zapadoreetan lubakiak egiten aritu zen. Eurak etxera itzuli ziren, baina aita Santanderren preso hartu zuten; laster askatu zuten. Aitak gero Bizinai

tailerrean egin zuen lan, eta bera eskolan ibili zen 14 urtera arte. Eskolan, neskak alde batean eta mutilak bestean jarrita, Cara al Sol abesten zuten. Gaiztakeriak apropos egiten zituzten zortzi egun eskolarik gabe egotera zigor zitzaten. Frontea egon zen lekuetan bala bila ibiltzen ziren, gero sutara botatzeko.

266. Gerraosteko zaurituak (OTX-026/008)

Balak sutara botatzen jolasten, lagun batek eskua galdu zuen, eta beste batek hatzak. Gerran galdutako bonbek ere hainbat zauritu eragin zituzten. Berna galdu zuen bati aitak gezurretako hanka bat egin zion, kablearekin-eta. Pedro hanka motza beste lagun batekin kamioian urtegira erori, eta laguna ito egin zen arren, Pedro bizirik irten zen.

267. Lan askotarako morroi (OTX-026/009)

Hamar urterekin morroi joan zen Urkiolara. Ugazabak jatetxe bat zuen, eta horrez gain sakristaua eta organista ere bazen. Ganaduak eta ardiak ez ziren falta haren etxean. Hilean bost ogerleko irabazten zituen, ordurako soldata ona, gehi mantenua eta jantzia. Artzain, behiak jezten eta monagilo lanetan jarduten zuen Nikolasek. Ezkontza askotan egin zuen monagilo, eta propina onak jasotzen zituen. Soldatan baino diru gehiago irabazten zuen propinatan.

268. Morroia ontziak eta arropak garbitzen (OTX-026/010)

Amari dirua ematen zionean, ama asko pozten zen, familian ez zutelako dirurik. Bera morroi egon zen etxea non zegoen azaltzen du. Ontziak garbitzen jardun behar izaten zuen, baita Santutxuko labaderoan, neskameekin batera, arropa garbitzen ere. San Antoneko bederatziurrenekora Arratiatik jende asko oinez joaten zen. Morroi eta neskameek ostatuko ganbaran egiten zuten lo.

269. Morroi lanetan hatza galdu (OTX-026/011)

Morrori zegoela aitak Otxandioko tailer batera eraman zuen, baina Urkiolara laguntzera joaten jarraitu zuen. Urkiolan lanean hatz bat apurtu zuen eta medikuak kendu egin behar izan zion. Anestesiaren gaineko azalpenak. Istripuaren ondorioz Urkiolan jarraitu zuen morroi.

270. Hemeretzi urterekin etxeko buru (OTX-026/012)

Hemeretzi urte zituela aita galdu eta Otxandiora itzuli zen. Arreba bati esker berehala bilatu zuen lana. Hemeretzi urterekin etxeko buru bihurtu zen. Tailerretik aparte, belar ebakitzen edo egurra egiten jarduten zuen, jornalean [alogerien]. Ama alarguna zelako soldaduskatik libratu egin zen.

271. Baserriko lanetan jornalean (OTX-026/014)

6-7 lagun elkartzen ziren jornalean [alogerien] lan egiteko. Segaz ebakitzen zuten belarra, ihartzeko. Ganbarari (sabaia) kamara deitzen dio Nikolasek. Beheko aldean korta, gainean etxebizitza eta honen gainean ganbara [kamara] dagoela azaltzen du. Baserriko lanak Urkiolan ikasi zituen.

272. Hiru abade eta hiru monagilo (OTX-026/015)

Urkiolan parrokoa eta beste bi abade egoten ziren. Egunero ematen zuten meza. Monagiloaren eginbeharrak azaltzen ditu. Abade bakoitzak bere monagiloa zuen. Meza laguntzeagatik erreal bat ematen zion abadeak. Meza bukatzen zenean Nikolas tabernara joaten zen abadearentzako ardoa ekartzera.

273. Abade ardozalea (OTX-026/016)

Abadeak errekan arrantzan egiten zuen, askarirako ezkailuak harrapatzen. Abadeak eskatuta, azunbre (litro bi) erdi ardo eramaten zion Kuxena tabernatik arrantzara joaten zenetan. Lehen aitaitari eta abadeei errespetu handia izaten zitzairen.

274. Abarketak eta abarkak (OTX-026/019)

Orduan domeketan ere abarketekin ibiltzen ziren. Abarketek gehiago irauteko, azpian galipota jarri eta errepedeko harri xeheak [txirte] itsatsi zola gogorra egiteko. Pilotan jolasteko abarketak kendu egiten zituzten. Bere abarkak nola egiten zituen azaltzen du. Etxeko txahalen larruarekin egiten zituen. Euria egiten zuenean oso labainak omen ziren abarkok.

275. Gomazko abarkak. Trailak (OTX-026/020)

Gomazko abarka berriak zortzi egunetan hondatzen ziren. Artilea kardatu eta gero maratilarekin [txabiriagaz] haria egiten zen. Hari horrekin egiten ziren abarka trailak. Lan hori egiten ere ikasi zuen Nikolasek.

276. Aramaioko ardi zaharrak (OTX-026/021)

Artzaintzan ere jarduna zen Nikolas. Anbototik Aramaioko Etxaguen auzora joan ziren ardi zahar bila. 30 bat erosi zituzten, eta haietako batzuk Urkiolatik euren Aramaioko artaldera itzuli ziren.

277. Urkiolan jende asko (OTX-026/022)

Gazta etxeakoandreak egiten zuen. Ganaduen esnea taberna-jatetxean gastatzen zen. Urkiolara jende asko etortzen zen. San Antonioetan ijitoak euren orgekin etortzen ziren. Jendea oinez joaten zen, autorik ez zegoelako. Nikolasek ez du inoiz autorik eduki, ezta bizikleta bat ere.

278. Abadiñora okela bila. Gasolina eta gasoginoa (OTX-026/024)

Urkiolatik Abadiñora joaten zen astean behin okela bila. Normalean astoarekin joaten zen, baina inoiz bizikletan ere bai. Bizikletaz gauze joaten zen, bizikletaren atzeko aldean abar bat kordelarekin lotuta. Esneduna gasoginoarekin zebilen kamioan ibiltzen zen. Gasolina herrian bertan hartu zitekeen. Gasolindegia non zegoen azaltzen du. Nikolasen sasoiaren txondor gutxi egiten ziren.

279. Santa Marina jaietan, limonada (OTX-048/004)

Santa Marina jaietako abestia, limonadari buruzkoa.

280. Jan truke lanean (OTX-048/010)

Merienda eta ardo truke ibiltzen zen jende asko elurzuloan lanean. Salmenta.

281. Sua, eskuak berotzeko (OTX-048/013)

Hamar-hamaika urte zituen aitarekin elurzuloan ibiltzen zenean. Sua egiten zuten, eskuak berotzeko. Hamar metroko sakonera zuen eta teilatu biribila elurzuloak.

282. Orbela elur gainera (OTX-048/017)

Orbela aurretik batzen zen, eta txabola batean gordetzen zen. Pago-orriak. Elurra mazoarekin zapaldu, eta orbela bota. Zerrarekin ebakitzen ziren blokeak.

283. Oinetan, zakuzko polainak (OTX-049/005)

Oinetan zapata zaharrak, abarkak edo zakuzko polainak ipintzen zituzten.

284. Elurzuloa errematera (OTX-049/006)

Herriak errematera ateratzen zuen elurzuloa, eta pujatu egiten zen. Santamarinan limonada egiten zen. Limonada nola egiten den, ardoarekin. Etxe guztietan egiten zen.

285. Elurzuloa, urtebeterako (OTX-049/008)

Subastan hartzen zuenak ordaindu egin behar zion herriari. 200 errealeko igoal. Urtebeterako hartzen zuen. Elurra sartzeko gizonak hartzen zituen, eta 6 errealeko ordaintzen zien. 4-5, igoal 6 lagun. Astotxoarekin eramaten zen gero elurra. Kiloka saltzen zen, hiru txikira edo. Ehun kilo, mila pezeta.

286. Ardangelak (OTX-049/009)

Ardangelak egoten ziren lehen, eta ardo txarra. "Behiak txahala egin berritan baino egarri gehiago".

287. "Agur, Santa Marina" kanta (OTX-049/018)

"Agur Santa Marina" kanta.

288. Bittor bere munduan bizi zen (OTX-052/002)

Bittor bere munduan bizi zan. Bere mundua euskera zen. Ez zen taberna zalea. Eskola hamalau urterekin utzi zuen. 14 urtetik 20ra arte etxean, beti liburu artean. Hogei urtegaraz Eibarrera joan zen. Egunez beharra eta gauez Eskola Armeriara. Trokelista zen. Gero Otxandiora joan zen. Mota guztietako sagar-landareak eukitzen zituen.

289. Bittor trokelista oso ona (OTX-052/003)

Lantegi bat montatu zuen Otxandion, kooperatiba bat. Rochman, orain Ulma dena. Trokelista ona zen. Astiro baina ondo egiten zuen lan.

290. Beti irakurtzen eta idazten (OTX-052/004)

Gero baserri bat hartu zuen Oletan eta behiak ipini zituen. Baina ez zitzaion ondo joan. Irakurtzen eta idazten jarraitu zuen. Erro eta Gara idatzi zuen. Ez galdetu Bittor nun da, mahai puntaren baten egongo zen bere liburuekin.

291. Zinea jarri zuten Otxandion (OTX-052/006)

Zinea jarri zuten. Hiru sozio ziren: Bittor, Emilio maisua eta don Jose abadea. Telebista nagusitu zenean inor ez zen joaten eta utzi egin behar izan zuten. Orain udalarena da lokala.

292. Erro eta Gara gerora hobeto ulertuko ei da (OTX-052/007)

Euskarazko klaseak eman zituen Eibarren, horretarako beti prest egoten zen eta. Erro eta Garaz esaten zuen orduan momentuan baino gerora hobeto ulertuko zela.

293. Jose Migel Barandiaran "apaiz txikia" Bittor ikustera Otxandiora (OTX-052/008)

Jose Migel Barandiaran Bittor ikustera etorri izan zen Otxandiora. Behin, Bittor ez zegoen etxean, eta esan zion arrebari: "Ba esaiozu apaiz txikia egon dela hemen". Kanpoko jendearekin hartue-man handia zuen; herrian euskarari ez zitzaion inportantziarik ematen.

294. Anaia biak ardoa eta uraren modukoak (OTX-052/010)

Anaia biak ardoa eta uraren modukoak ziren. Ondo konpontzen ziren bata Gorbeian eta bestea Anboton egonez gero. Amarena zen Bittor, berak zeukan amaren antzik handiena.

295. Otxandiar asko Eibarren lanean (OTX-053/001)

Mutikotatik ezagutzen zuen Bittor. Bazekien Eibarren ibilia zela beharrean. Otxandioko askok egiten zuen lan Eibarren. Domeka gauetan herria hutsik geratzen zen. Funcor-ekoekin harremanetan jarri zen herrian lantegi bat sortzeko. Horrela sortu zuten lantegia, orain Ulma dena.

296. Baserritarren esne-greba, antzerkiaren gaia (OTX-053/002)

Bizi guztian izan du Bittorrekin harremana. Hainbat antzerki egin zituzten Bittorren laguntasunagaz. Esne greba bat izan zen sasoi hartan. Eta hori izan zen teatroaren gaia. "Arrautza lokak" zeukan izena obrak, eta otxandioar askok hartu zuen parte. Bittorrena zen testua.

297. Arangio mendiko haize-erroten aurka (OTX-053/003)

Urkiolatik Oletara doan galtzada zaharra ikuskatzen elkarrekin ibili izan ziren. Kondebasoan dago, erreka bazterrari jarraituz. Kondebasoa deitzen zaion eremuak Otxandioko herriarena izan behar zuen, baina Gasteizko udalak erosita dauka. Haize-errotak, eolikoak ipini nahi izan zituzten aspaldi batean Arangio mendian. Borrokan jardun zuten haren aurka, Aramaiorekin bat eginda..

298. Jose Migel Barandiaran bisitatzera Ataunera (OTX-053/004)

Mariok leku askotara laguntzen zion Bittorri. Bere autoan eramaten zuen hara eta hona. Donibane Garazira, euskaltzaleen batzar batera; Ataunera, don Jose Migel Barandiaran ikustera. Goiz guztia egin zuten Ataunen berarekin, eta bazkaldu ere bai. Barandiaranen esaera: "berak zenbat eta gehiago jakin eta konturatzen zela ez zekixela ezebe". "Ikusten duzue ha sagarra zela dauen beteta? Ba ez dauka harrokerixarik bape." Eta Jose Migelek esaten zion Bittorri: "Holakoxia izan biok". Oso gizon humila zen Jose Migel. Bittorrek aurretik zekien hark zer esan behar zion.

299. Durangarrekin eztabaidan (OTX-053/006)

Ama zaintzen eman zuen bere sasoirik onena. Lantegia eta etxeak aurrera ateratzen ere ibili zen. Bittorrek esaten zuen euskera desberdina egiten zela Uribarrenean eta Urigoienean. Durangarrekin sarri izaten zituen eztabaidak, eta haserretu ere egiten zen inoiz.

300. Bittor kooperatibako gerente (OTX-054/002)

17-18 urterekin kontzientzia politikoa hartzen hasi zirenean, Gerediaga Elkartearen inguruan zebiltzan, eta orduan sartu zen Bittor euren bizitzan. Abertzalea zen Bittor, eta eragina izan zuen eurengan. Otxandio hustu egin zen gerra ostean. Jendeak alde egin zuen, Bittor tartean. Eibarretik itzuli zen taldea oso heterogeneo zen. Lantegia, kooperatiba bat montatu zuten. Bittor gerentea izan zen urte batzuetan. Oso inportantea izan zen Otxandioarentzat. Etxe kooperatiba bat ere montatu zuen. Ekonomia aldetik eragin handia izan zuen. Horiek denak alde batera utzi eta kultura eta hizkuntzan zentratu zen.

301. Pertsona selektiboa zen (OTX-054/004)

Eragile bat izan da Bittor. Akats txiki bat bazuen: selektibo samarra zen. Pertsona batzuk aukeratzen zituen gero eragina izan zezaten beste pertsona batzuegan. Oso zuhurra zen, argia. Ez zuen alferriko lanik egiten. Frankismo garaia zen. Ezkutuan zeuden gauzak ikusten laguntzen zieten.

302. Paranoiko samarra erregimenaren zelatariak zirela eta (OTX-054/006)

Talde politiko asko zegoen, baina Bittorrek ez zuen parte hartzen foro zabaletan. Berak bere ikuspegia zuen, oso abertzalea. Besteak argitzeko beharra sentitzen zuen. Publikoan hitz egiteko ez zuen erraztasunik. Francoren denboran kontrol handia zegoen erregimenaren aldetik. Bittor paranoiko samarra zen, "mania persecutoria" apur bat bazeukan. Bera ahalegintzen zen Bittor lasaitzen. Baina sarri arrazoa zeukan. Ez du uste inork begi txarrez ikusten zuenik. Inori ez zion kalte egin, eta ostera herriari mesede agin, bai. Austeritate handiz bizi zen, eta inoiz entzuten ziren herrian berari buruzko komentarioak.

303. Euskara historia interpretatzeko tresna (OTX-054/007)

1958an sortu zuten 'Talleres Ochandiano'. Gero 'Rochman' bihurtu zen, eta gaur egun 'Ulma' da. Oso garrantzitsua izan da herriarentzat. Gustura egoten ziren berarekin berbetan, batez ere hizkuntza kontuez: hitzen erroak, jatorriak eta horrelakoak. Intuzio handia zuen loturak egiteko, erroak topatzeko... Hizkuntza historia interpretatzeko tresna bezala erabiltzen zuen.

304. Gaez lan eta egunez lo (OTX-055/001)

1978an hogeitaz urterekin etorri zen Otxandiora, ikastolara lanera. Bilbon jaiotakoa da, baina jatorriz otxandiarra. Bittorren etxepean bizi zen. Bittorrek gaez lan eta egunez lo egiten zuen. Amaren etxera joaten zen bazkaltzera.

305. Txillardegi Kapanagaren D mailako azterketa zaintzen (OTX-055/002)

Hurrengo urtean Euskaltzaindiko D titulura aurkeztu zen, eta suspenditu egin zuen. Orduan, lagunduko ziola esan zion Bittorrek. Haren sukaldera joaten zen, liburutegi kaotiko bat, azterketa prestatzera. Biak batera aurkeztu ziren

Durangoko ikastolan egin zen azterketara. Txillardegi zegoen zaintzen. Amaiak Bittorri kopiatu zion sinonimoen atala, eta aprobatu egin zuen.

306. Politikaz hitz egitea gustatzen zitzaion izugarri (OTX-055/003)

Gontzal Mendibil ikusten zuen etxean gora eta behera. Kanean ere harremana zuen Bittorrekin. Politikaz hitz egitea gustatzen zitzaion izugarri. Eta hauteskundeak hurbiltzen zirenean kinielak egitea ere bai. Ez zuen inoiz asmatzen. Adin guztietako jendearekin hitz egitea gustatzen zitzaion, baina batez ere gazteekin.

307. Gaztetxera hitzaldia ematera (OTX-056/001)

Gurasoen bitartez ezagutu zuen mutikotan Bittor. Txokoan egoten zen egunkaria irakurtzen. Politikaz, euskarari buruz... zelan berba egiten zuten entzuten zuen. Handi egin zenean harreman zuzena izan zuten. Berak eta bere adineko beste batzuek denbora dezente ematen zuten berbetan. Behin gaztetxera eraman zuten hitzaldia ematera. Askok gustatzen zitzaion gazteekin egotea.

308. Otxandion garrantzia izan duten proiektuetan, Bittorren izena beti (OTX-056/002)

Geroago, bera alkate bezala hasi zenean, Bittorren beste alderdi bat ezagutu zuen: herrigintzan Bittorrek herriari egindako ekarpena: lantegia, etxe berriak, zinea... Otxandion garrantzia izan duten proiektuetan arakatzeko hasten zenean, Bittorren izena agertzen zen beti.

309. Ez zitzaion gustatzen inork esatea zer egin behar zuen (OTX-056/004)

Udaletik eskaini zioten laguntza bere jakinduria jasotzeko beka baten bidez edo. "Bai, bai, egingo dogu". Gaur arte. Ez zitzaion gustatzen inork esatea zer egin behar zuen eta noiz. Aritz alkate zela, Bittor ez zen sartu udal gestioa kritikatzera.

310. Euskalduna izatearen harrotasuna transmititzen (OTX-057/002)

Lehen oroitzapena: Bittor beti egoten zen ikastolako ipuin-sariketako epaimahaian. Parte hartzen zuten guztiak animatzen zituen idaztera. Gero, gaztetan, gogoan du zelan egoten zen txokoan bazter batean, sutondoan neguan, egunkaria irakurtzen. Berarekin bost minutu berba egiteak asko aportatzen zion. Hasieran euskara kontuekin, bazekien idaztea gustatzen zitzaioela eta. Euskalduna izatearen harrotasuna transmititzen. Bere teoriak mila bider esplikatzeko zizkion, baina ez zizkion idatzita ematen. Idatzi, marraztu eta sutara bota.

311. Jantzia nazioarteko politikan (OTX-057/003)

Oso jantzia zegoen mundu mailako politikan. Gogoan du Golko Gerra garaian zelan esan zion: "Ez nago ez amerikanuen ez Saddam Husseinen alde. Ni kurduen alde".

312. Erraza berarekin konektatzea, baina burugorria zen (OTX-057/004)

Erraza zen berarekin konektatzea. Aldi berean, oso burugorria zen, ezin zen bere ideietatik atera. Beti pentsatzen zuena esaten zuen. Amamarekin harremana zuen, eta gustatzen zitzairen antzinako kontuak elkarri kontatzea. Amatatzen hasi eta gero ez zuen ia harremanik izan. Penatuta geratu ziren denak Bittorren amaierarekin. Zaila zen berarekin diskutitzea, argudio oso landuak zituelako.

313. Uranos: greziar hizkuntzaren oinarrian euskara (OTX-057/005)

Bittorrek zioen greziar hizkuntzaren oinarrian euskara dagoela. Greziarren jatorrizko jainkoa Uranos zela, bizitza sortzen zuen jainkoa. Ura da bizitza sortzen duena. Eta gauarena 'ka', 'kaos', euskarazko 'gaua'. Erraz konbenzitzen zuen jendea; eta ez zuen uzten inongo zirrikiturik.

314. Euskal zenbakiak (OTX-057/006)

Dimako errota baten aurkitutako euskal zenbakiak esplikatzeko zizkion: 5: esku bat; 20: pertsona. Hogeiko sistema. 'Hamaika' zergatik...

315. Gizartean eragin eraldatzeko (OTX-058/002)

Bittor baino gazteagoa arren, harekin solasaldi asko izandakoa da. Gizartean eragin nahi zuen, arlo askotan, ez euskararenean bakarrik, eta eraldaketa bilatzen zuen. Zinea, etxebizitza-kooperatiba, lantegi-kooperatiba... Horrelako ondarea utzi duen gutxi izango dira Otxandion. Eragile batek ez du beti asmatzen, denen gustua egitea ezinezkoa da, baina arrasto handia utzi du Bittorrek.

316. Bizitzeko filosofia bat lantzen zuen (OTX-058/003)

Bizitzeko filosofia bat lantzen zuen Bittorrek, gauzen oinarrien bila beti. Utopia baten mugitzen zen. Ez zuen soldatarik jasotzen. Pentsatzen zuenaren inguruan landu zuen bere bizitza. Jakituria handia garatu zuen naturaren inguruan, sagarrak mentatzen... Harreman gozoa izan zuen berarekin. Askotan gure gizartean oso azaletik aztertzen ditugu pertsonak. Erro eta Gara ez da erraz irakurtzeko liburua, sakon aztertzekoa baizik.

317. Aho hizkuntzan eta ingurunearen ezagutzan oinarritzen zituen bere azterketak (OTX-058/005)

Zenbat eta nagusiago, orduan eta gogorragoa bere planteamenduetan. Ez zuten asko eztabaidatzen. Bittor oso polemista zen eta txoke egiten zuen ingurukoekin, batez ere zenbait euskara aditurekin. Ez zen oinarritzen liburuetan eta dokumentuetan, nahiz eta arlo hori ere landu. Baserritarren edo artzaileen hizkuntza nahiago zuen. Batez ere inguruari begiratzen zion. Mendiak ez dira aldatzen. Hor begiratu behar zen euskara aztertzeko. Erro eta Gara ere horretan dago sustraituta. Arratiako euskara asko famatzen zuen. Denborak arrazoia eman dio. Gaurko filologoak bide horretatik omen doaz.

318. Baigorri = Ibaigorri (OTX-059/002)

Toponimia kontuekin jarduten zuten. Harekin ez zegoen eztabaidarik. Berak esaten zuena eta kito. Motiborik ere ez zuten eztabaidatzeko. Oso gizon umila eta tratu onekoa zen. Baigorri = Ibaigorri, anekdota.

319. Imanol Laspiurren lagun handia (OTX-059/003)

Zubi egiten zuen Imanol Laspiur eibartarrarren eta Bittorren artean Asko estimatzen eta goraiatzten zuen Imanol. Buruko tumor batez hil zen. Ez zuen hiletara eraman autoa matxuratuta zuelako, eta hori zela eta muturrekin izan zuen denboraldi batean.

320. Bittor igarle ona (OTX-059/004)

"Agorreztixe" izeneko sagarra, Bittorek ateratakoa, etxean du eta sagar mota ona da. Begi ona zuen igartzeko. Laspiurrek "sorgiñe" esaten zion. "Benga Bittor, atera rayos X hori" esaten zion klandestinitatean-eta ibiltzen zirenean. Baserri inguru bat txukun ikusten zuenean, "hemen "maternalismoa" dago", esaten zuen; ostera narras ageri zenean, gizonak agintzen zuela. Igarle ona.

321. Erro eta Gara berrargitaratu beharko litzateke (OTX-059/005)

Erro eta Gara berrargitaratu beharko litzateke. Euskara batua eta ez batua jarduten da, baina ea oraindik euskara batuak berarengana jo behar duen... Erro eta Gara-n izatasuna, egintza eta getasunaz bera ei da nagusi. Eta asteko egunak... Gehiago gustatzen zitzaion erantzutea galdetzea baino. Beti egoten zen txokoan jezarrita egunkaria irakurtzen, norbait noiz etorriko zain. Oso estimatu zuen Bittor.

322. Bere baloreak jakintzan zituen (OTX-059/006)

Abaro izeneko txabola bat dago, eta Bittorrek argitu zion esanahia: ganaduen gordelekua. Iñazelai: siesta lekua. Biak ondoan daude. Beti esaten zuen inguruan zer dagoen begiratu behar dela; zer landare mota, eta abar. Berarentzat maisurik onena, Bittor. Ez zen rollista, neurtua baizik. Jendeak ez zuen Bittor ondo ezagutu. Gizon zintzoa zen. Bere baloreak jakintzan zituen.

323. Nazio minorizatuak ezagutzen Bittorren eskutik (OTX-060/002)

16-17 urterekin ezagutu zuen Bittor. Herriko Tabernako txoko batean egoten zen egunkaria irakurtzen. Ordu asko egiten zuten berbetan. Oso lagun egin ziren. Berarentzat batez ere laguna zen. Euskara eta euskal Herria maitatzen Bittorrekin ikasi zuen. Egunkaria hartu eta notiziak komentatzen zituzten. Euskararen arloa aipatzen da beti, baina badago beste arlo inportante bat ere: beste nazioak, minorizatutako beste kulturak maitatzen ikasi zuen berarekin. 1992an gertatu zen Sobiet Batasunaren porrota, eta orduan azaleratu zen hainbat nazio: txetxeniarrak, inghusak eta Kaukasoko beste batzuk. Bittorren bidez izan zuten haien berri. Hizlari ona bazen, entzule hobea zen. Errespetu handiz hurbiltzen zen jendearengana. Otxandiora etortzen ziren kanpotarrak Bittorregandik pasatzen ziren eta haren lagun min bihurtzen ziren. Gure tesitura berdintsuan dauden herrialdeak ezagutu eta maitatzen ikasi zuen. Hori da berarentzat Bittorren ekarpenik handiena.

324. Otxandion garena bagara Bittorren modukoengaitik gara (OTX-060/003)

Bittor ez zen errekonozitua izan. Pertsona arraroa zen, bai, baina hori ez txarra. Bere zaletasunak zituen, eta askok ez zuten ulertzen. Esandakoez gain, beste aportazio batzuk ere egin zituen, kooperatibak sortzen, kulturean... Otxandion garena bagara Bittorren modukoengaitik gara. Bere partzelaren defendatzaile sutsu asko dago mundu akademikoan, horregatik ez zuten hain ondo ikusten Bittor.

325. Gazte artean gustura (OTX-060/005)

Ez txokoan bakarrik, Alexen etxean ere egoten zen gaztez inguratuta. Eta beste bat gehiago izaten zen. Moldatzen zekien egoeretara eta gaietara. Asko gustatzen zitzaion politikaz berba egitea, beti ere errespetuz. Pentsatzen du oso pozik egongo zela gaur eguneko egoerarekin edo ibilbidearekin.

326. Euskara batuarekin kritiko (OTX-061/002)

Azpeititik etorri zen Otxandioko eskolara lanera. Hitzaldiren bat ematera eraman izan zuten. Euskara batuari buruz berba egiten zuten, eta Maiterek ikusten zuen kritikoa zela. Puntadak botatzen zizkion bera giputza zelako, batuak gehiena gipuzkeratik hartu zuelako. LAISTER-LASTER dela eta, demandatxoa izan zuten; Maitere isildu egiten zen, ezin zen eztabaidatu Bittorrekin; gailendu egiten zen. Ipuin lehiaketak egiten zirenean, Bittor epaimahaian egoten zen. "Haur hauek maila bajua daukate" esaten ei zuen sarri.

327. Olentzeroren ordeez 'Olentzaro' (OTX-061/003)

OLENTZEROn ordeez OLENTZARO esan behar zela zioen, eta hori erakusten ahalegintzen ziren eskolan. Olentzaroren kanta ere, Bittorren eraginez, beste modu batera kantatzen da Otxandion. Kantua abesten du.

328. Hitzaldiak ematera eskolara (OTX-061/005)

'Araban bagare' ere berea da. Hizkuntza kontuak asko aipatzen zituen, bereberea eta beste hizkuntza batzuk euskararekin konparatzen jarduten zuen. Ez ziren berarekin aspertzen. Hitzaldi banaka batzuk eman zituen eskolan. Hasten zenean ez zekien noiz amaitu. Beti egoten zen ipuin-sariketako epaimahaian.

329. Olentzaro kantua (OTX-061/006)

OLENTZARO Herri talde guztia batu gara hemen, sua dakarrenari agurra egiten, poztu gure herria dihardu esaten jainkoa berriz dala gugana etorten. Horra!, horra! gure Olentzaro zuzia daroala baltzittuta dago, betiko arduradun giñarra sortakin sua egingo deusku bere ardaiakin. (Beste estrofa bat ere badu)

330. Ara toponimoa sakratua izendatzeko (OTX-065/002)

Aramaioko toponimoak. O lokatiboaren erabilera zabala. "Ara" agertzen da antzinako santutegi gehienetan. Adibideak ematen ditu.

331. Kristautasunaren aurreko erlijioaren aztarnak. (OTX-065/003)

Barandiaranek Orozkon eta Urbioi inguruan entzundako istorioa, "harri bihurtutako neskatila"rena. Garaiko San Juan ermitan estela zaharrak topatu zituzten eta haren azpian kedarra eta harlauza handi bat zulo bat erdian zeukala. Toponimoa "arane" zen. Kristautasuna ez zela egun batetik bestera sartu uste du.

332. Kristautasunaren aurreko erlijioaren ezaugarriak, sua (OTX-065/004)

Sua gizartearen aurrerabide garrantzitsuena izan da: abereak izutzeko, berotzeko, janaria egiteko, burdina eta materiala lantzeko...

333. Kristautasunaren aurreko erlijioaren ezaugarriak, haritza (OTX-065/005)

Materia primak eskuratzeak sortu ditu gerra gehienak, bere ustez. Haritza, ekonomiaren oinarria zen: eraikuntzan, sua egiteko, ezkurra jateko... Haritza eta lizarra zuhaitz sakratuak izan dira. Euskal Herriko zuhaitz sakratuak aipatzen ditu. Legeak haritzaren azpian erabakitzen ziren.

334. Kristautasunaren aurreko erlijioaren ezaugarriak, basalizarra (OTX-065/006)

Basalizarrarekin edaria egiten zuten. Basalizarra eta lizarraren arteko aldea. Berriak hartzen du lehengoaren izena, eta lehengoari "basa" jartzen zaio aurretik.

335. Sei urtaro ziren lehen (OTX-065/007)

Kristautasunak ezin izan zituen bi solstizioen ospakizunak kendu (neguburua eta udaburua). Orduan, kristautu egin zituzten. Sua, ura eta zuhaitza ziren elementu nagusiak kristautasunaren aurreko erlijioan. Sei urtaroak: udaberria, uda, udagoiena, negulehena, negua eta neguondoa.

336. Aratuste eta inauteri hitzen esanahia (OTX-065/008)

Urtaro bakoitzean jaialdi bat ospatzen zutela uste du. Aratusteak edo inauteriak garizumarekin lotuta daudela dio. Berrogei egunetako baraua egiten omen zen udaberrian, neguko toxinak garbitzeko. Berrogei zenbaki mitikoa da euskaldunentzat. Urtaro bakoitzak orduko bizitzako ezaugarriak adierazten ditu. Aratuste, haragi uztea dela uste du, eta inauteria, inausteko aroa.

337. Aizaroa, haize aroa (OTX-065/009)

Aste Santuari aizaro esaten zaio zenbait lekutan. Aizaroa haize garaia izaten dela dio. Berba fosilek adierazpena behar dutela dio. Erearo edo hezearo, uztaro, azaro.

338. Azaroa, hazia ereiteko aroa (OTX-065/010)

Azaroa hazientzako garai on bat zela esan nahi du. Garia urrian eta azaroan ereiten zen, baita beste ale eta barazki batzuk ere. Hitzak interpretatzeko lehenera joan behar da eta orduko bizimodua ezagutu. Aleak udazkenean ereiten ziren.

339. Olentzaro, oles egiteko aroa (OTX-065/011)

Neguan Olentzaro dago. Garai bat zen, jai garai bat, ez pertsonaia bat. Interpretazio asko izan ditu Olentzaro izenak. Bittorren ustez olesaroa zela dio. Jairik garrantzitsuenak negukoak ziren. Oles egitea, jairako dei egitea da. Oleskari, olerkarirekin lotzen da.

340. Suaren gurtzea eta berrikuntza (OTX-065/012)

Izu eguna egiten zen Eibarren, sua berritzeko erritua. Bizkaian Gabonetan bi egur sendo sutan ipintzen ziren, aurreko urtekoa eta urte berekoa. Erritua azaltzen du. Sua itzaltzea azkena zen.

341. Kristautasunaren aurreko erlijioaren ezaugarriak, ura (OTX-065/013)

Ura bedeinkatu egin izan da. San Juan goizeko ura urte guztian gordetzen zen eta osagarria zen.

342. "Doninatxa" edo San Juan eguneko enborra (OTX-065/014)

San Juanetan zuhaitza jartzen zen herriko plazan. Mila urtetako ohitura galdu berri dela dio. Lizarra edo haritzari "doninatxa" esaten zaio, edo txopoa ere bai. Ohitura aldatu da baina izena ez.

343. Errituak eta bizitzaren sekretua (OTX-065/016)

Kristautasunaren aurreko erlijioaren errituei buruzko iritzia ematen du. Haritzaren azpian legeak eta mendi gainetan gurtzeak egiten zituzten. Bizitzaren sekretu bat zeukatela uste du.

344. Louis Charpentierren teoria erromes bidez (OTX-065/017)

(Louis) Charpentierren "El misterio de Compostela" liburuaren edukia aipatzen du. Kristautasunaren aurreko bideak zirela esaten duela kontatzen du; hiru erromes bide zeudela eta inimiziazko bideak zirela. Antzinakoekiko ikuspegia.

345. Euskaldunak, kultura zabal baten azken hondarra (OTX-065/018)

Louis Charpentierren teoria azaltzen du. Hark omen dio druidak izan direla bizitzaren misterioaren bilatzaile eta misterioa euskaldunengan dagoela. Erromes bideen bukaerak eta haien arteko loturen azalpena, herrialde askotara zabaldua zegoen kultura baten hondarrak izatean datzala dio. Ideia horrekin bat egiten du Bittorrek.

346. Ahatea, jainkoaren eta gizakiaren arteko mezulari (OTX-065/019)

Louis Charpentierren teoriak azaltzen jarraitzen du. Ahatea zela jainkoaren eta gizakiaren arteko mezularia esaten omen du. Araban ahateari "arata" esaten zaio. Egiptoko kulturarekin ere lotura ikusten du. Munduan zabaldurik zegoen akumulaziozko erlijioa izango zela uste du Bittorrek, ondoren forma berriak hartu dituen. Euskal Herrian erlijio haren fosila dagoela ikusten du.

347. Durangoko sorgin ehiza, jakintza desagerrarazteko (OTX-065/020)

Kristautasunaren aurreko erlijioak Euskal Herrian berandura arte iraun zuela kontatzen du. Durangoko sorgin ehiza milaka urtetako jakintza desagerrarazteko helburuz egin zela dio. Durangoko epaiketako aktak aztertu behar zirela dio.

348. Emakumeak erlijio zaintzaile (OTX-065/021)

Durangoko sorgin ehizan emakumeak izan ziren gehienbat jazarritakoak. Erlijioaren eusleak emakumeak izan dira. Salatariak egoten dira polizien jardunaren atzean. Orduan umeak izan ziren salatariak. Orduko jazarpenaren zergatiak azaltzen ditu.

349. Osasunaren sekretua desagerrazi nahian (OTX-065/022)

Louis Charpentierrek aipatzen duen bizitzaren misterioaren zentzuaren azalpena ematen du. Bizitzaren misterio hori osasunaren sekretua dela uste du Bittorrek. Milaka urtetan lortutako jakintza desagerrarazi nahi izan zela dio.

350. Arangio, mendi sakratua (OTX-065/023)

Arangio mendi sakratua. Ermita ere badago. Lehengo gurtze lekuak ermitaz estali zituzten eta haietako batzuk aztertu zituen Bittorrek. Mendia hainbat urtetan sutan egon zela esan zioten zenbaitetan eta hortik ondorioztatu zuen mendi sakratua zela.

351. Arangio, mendi estrategikoa (OTX-065/024)

Arabiarrek Araban egindako eraso baten berri ematen zuen kronika batean irakurri zuen sua gurtzen zuten mendiraino iritsi zirela. Hemengo kronistek arabiarrek Legutio alderaino heldu zirela diote. Arangio mendi ingurua beti leku estrategikoa izan dela dio, Bizkaiko atea.

352. Akelarrerren orde, okelarre zen (OTX-065/025)

Faktore askorengatik uste du Arangio mendi sakratua izan zela. Sua, zuhaitza eta ura ziren gurtze elementuak. Akelarre beharrean okelarre izango zela dio, akerra erreta jaten zutelako. Eztei egunean, aharia eramaten omen zen gurdiaren atzealdean, bazkaritan jateko.

353. Ustezko sorginak, osasunaren sekretuen jagole (OTX-065/026)

Kristautasunak edozer esan izan du beste erlijio batzuei buruz. Bere ustez sorgin ehizaren motiboa osasunaren sekretua zen, medikuntza.

354. Egu jainkoa eta asteko egunak (OTX-065/027)

Kristautasunaren aurreko erlijioa oso logikoa zen. Jainkoaren izena Egu zela dio. Eguberri, ekain, eguen... Asteko egunak zazpi izan ziren: astelehena, asteartea, asteazkena edo eguaztena, eguena, egubakoitza, laurenbata. Laurenbat hitzaren azalpena.

355. Otxandioko bonbardaketaz (OTX-068/001)

- 356. Herri-omenaldiaren nondik norakoak (OTX-068/002)**
- 357. Andikonako kanta (OTX-068/003)**
- 358. Errepublika etorri zenekoa eskolan (OTX-069/001)**
- 359. Otxandioko giro politikoa gerra aurretik (OTX-069/002)**
- 360. Aitagaz aberri egunera eta aitak Euzkadin idatzi (OTX-069/003)**
- 361. Gerraren hasiera atoan igarri zen Otxandion (OTX-069/004)**
- 362. Otxandioko bonbardaketa (OTX-069/005)**
- 363. Otxandiotik Bilbora eta barriro Otxandiora (OTX-069/006)**
- 364. Ofensiba hasi eta barriro Bilbora (OTX-069/007)**
- 365. Bilbo eta Alonsotegi bonbapean (OTX-069/008)**
- 366. Tropa frankistak sartu zirenean berriro Bilbora (OTX-069/009)**
- 367. Itzulera gogorra: denean eskasia (OTX-069/010)**
- 368. Piloto alemaniarrek arrastaka Bilbon (OTX-069/011)**
- 369. Kartzelako asaltoan hil zuten otxandiarra (OTX-069/012)**
- 370. Bilboko kartzelak eta preso otxandiarrek (OTX-069/013)**
- 371. Otxandiora itzulera (OTX-069/014)**
- 372. Amak alargun saria kobratzeko lanak (OTX-069/015)**
- 373. Hausnarketa (OTX-069/016)**

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com